

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a / 487. zenbakia

JOSE MARI LARRAÑAGA
Miguel Altunatik Eusko Jaurlaritzara



PILOTA: MUGURUZA-GUTIERREZ FINALERDIETARA/10 • ANTZERKIA: OIHULARI KLOWN NOVEDADESEN/12



Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

2002ko udaberria-uda bilduma.

Cristina berriz zuekin. Eta ospatzeko, deskontuak.



CRISTINA
Arruriaga z/g BERGARA
943 76 03 04

Levi's
Lois
Caroche
Yerse
Fransa
Ichabod

ATREBENTZIAEZPADA/ Etxeko lanak ordaindu egin biharko liekela uste dozu? Zenbat?



MARIA JESUS LARRAÑAGA
55 urte



DIEGO ALCANTARA
25 urte



LURDES RIERA
41 urte



CARMEN LEDESMA
32 urte



ISORTXE IZA
22 urte



JUSTO LARRAÑAGA
63 urte

Ondo egongo litzake, baiña zeinek ordainduko dau? Horixe da galderia. Gobernuak akaso? Aproposena hori izango litzake. Zenbat ordaindu biharko loskueken ez dakit.

Bai. Lan bat dan neurrixan ordaindu egin biharko litzake. Gaiñera, ez da zortzi ordura mugatzen, hori baiño gogorragua da. Ez dakit zenbat ordaindu biharko litzakien.

Bai, horixe. Soldata bat kobrau biharko giñuke. Pentsau, gaiñera, ordutegi barik egitten dogula lan, muga bakua da gure ordutegixa. Ez dakit zenbat kobratu biharko giñukien.

Ez litzake gaizki egongo, ez dalako ez ordaindua ezta eskertua be. Beste edozein lanen moduan izan biharko litzake. Lan gogorra da. Ez dakit zenbat ordaindu biharko litzakien.

Kobrau egin biharko leukiela uste dot. Azken baten, beste edozein lanen modukua da. Dana dala, ez dakit zenbat ordaindu biharko litzakien, hori beste batek balorau biharko leuke.

Baietz uste dot, baiña ez da hain samurra izango. Bizimodu gogorra jarritta dago, zailla, eta premiñan egongo die. Zenbat ez dakit, baiña itxurazkua. Erabakiren bat hartu biharko litzake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IBARGARAI KALEKO BIRIBIL BERRIA Irailerako amaituta zegoen Ibargarai kaleko biribilgunea. Baina atzo bukatu izan balute bezala dago: erdialde guztia lurrez eta harriz beteta, eta laranja koloreko plastiko batez inguratuta. Ibargarai kalea horren polit jarri eta biribilak horrela geratu behar ote du, bada? Pixka bat txukuntzea ez legoke gaizki. /MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /7

KIROLAK /10

KULTURA /12

Jose Mari Larrañaga

Miguel Altuna Institutuko zuzendari Jose Mari Larrañaga elkarrizketatu dugu.

Debarroko finalerdietan

Errasti anaien aurka galdu arren, Debarroko finalerdietan dira Muguruza eta Gutiérrez.

Pintura erakusketa

Martxoaren 12tik 24ra bitartean, Alberto Illescasen olioak egongo dira ikusgai kultura etxean.

ASTEKO DATUA

200

EGUBAKOITZEKO MANIFESTAZIOKO LAGUNAK

Berrehun lagun inguru batu ziren joan den egubakoitz iluntzean izandako manifestazioan. Kale agerraldiaren helburua izan zen Segi eta Askatasuna taldeen ilegalizazioak salatzea.

BESTEKE SANA

“Ibarreko jarduera nagusia industria da, eta nekazaritza atzean gelditu da, errentagarritasun

ekonomikoa ez delako bestearen, industrialaren parekoa. Baina nekazaritza ezin da neurtu gaur egungo parametro ekonomikoekin. Ibarrek dituen indize ekonomiko onak direla-eta, Landa Garapenerako laguntzetatik kanpo geratzen ari da.

(...) Hemen, nekazaritza eta baserri ingurunea dago krisian, dagokiona eman ez diogulako. Denon ardura da horri erantzuna ematea. Orain arte moldatu gara oinarritzko beharrei erantzuteko, baina ez da nahikoa, eta baserria berpizteko jarduera plana egin da.

MARI KARMEN ITURBE
Ze Barri?/02-03-08

BERAIEKDIÑOÈ/ Asis Iriondo



Irudi faltsuak

Aste honetan ere izan ditugu jende asko eta askoren begiradapean zirkoarena egiten. Ez dihardut pailazoez, futbol zelaietan kirola egiten duten jokalaririk handiez baizik. Ez zaituzte harritzen orain futbolari askok golak ospatzeko dituzten modu bereziek? Batzuetan pailazoarena egiten dute; beste batzuetan bere kuttunez gogoratuta, azpiko kamisetan zerbait idatzi eta gola sartu eta berehala kameraren bila, idatzitako hori denoi erakustera... Zergatik ez gara beste guztiok ere horrelakoetan hasten? Igeltseroa, kaleetako ingeniari guztien aurrean harririk zuzen jarri eta gero, has dadila barruko tirantedun kamiseta kentzen eta guztioi txaloak eskatzen; kale-garbitzaileak bere kalea txukun laga eta gero, har dezala eskoba eta egin ditzala *majorette* mugimendu batzuk... Ondo egindakoa ospatu, bai, baina tamainan! Gizarte honetan irudia da nagusi eta horrek dena mugatzen du.

Lelokeria ematen duen adibide horrek eragin handia du egungo komunikabideetan. Eskolara buruan zapia zuela joan nahi zuen neska gaztearen irudiak ikusita, amorrua sentitu nuen. Ezin dituzte berriak eman irudi batzuk eman gabe? Zuzena da neska-aren eskola aurrean kamera pila bat izatea neska-aren eta lagunen irudiak grabatzen? Hori da prentsa askatasuna? Gogoeta egiteko, pentsatzeko, zergatiak eta irtenbideak bilatzeko patxada kentzen digute, irudi pila bat

“Ez zaituzte harritzen orain futbolari askok golak ospatzeko erabiltzen dituzten modu bereziek?”

ematearen truke. Honetaz guztiaz “pentsatzen” niharduela Institutu garaian irakasle izan genuen Mikel Hernández Abaituari egindako elkarrizketa bat irakurri dut: “Erraz ikusten dena nagusi da gaur egun, eta gutxien ikusten denari buruzko lanak baztertu egiten dira” eta irakasleek ondo esandakoak ospatzeko zerbait egin behar dela bururatu zait, adibidez zuei gogoetarako txanda eman?

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15
- ZAPATUA, 9**
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- DOMEKA, 10**
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 11**
PUY, Barrenkale 25... 943 76 16 87
- MARTITZENA, 12**
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 13**
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
- EGUENA, 14**
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ... 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa ... 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa ... 943 76 62 46
- Ertzaintza ... 943 76 53 40
- Osasun etxea ... 943 76 24 40
- Asepeyo ... 943 76 16 43
- Pakea ... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
- Odol emaleak ... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak ... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ... 943 77 91 32
- Igenlekuak ... 943 76 20 51
- Kultura etxea ... 943 77 91 58
- Liburutegia ... 943 77 91 62
- Kiroldegia ... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ... 943 76 14 92
- Erregistroa ... 943 76 13 15
- Jardun ... 943 76 36 61
- Idolaz ... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. ... 943 76 62 71
- Postetxea ... 943 76 26 85
- Bedelkar ... 943 76 04 68
- Akulu AEK ... 943 76 05 18
- Udal euskaltegia ... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00; 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Eguaztenean, martxoaren 13an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

1956KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1956ko kintoei (aurten 67 urte betetzen dituztenek) bazkaria egingo dute martxoaren 24an Zarauzko Aiten Etxe jatetxean, 14:30ean. Aurretik, frantziskotarren elizan hildakoen oroimenezko meza izango da, 12:30ean. Azpillaga eta Intxausti bertsolariak hartuko dute parte elizkizunean. Bazkari-joan nahi duten bergararrek Inaki Arregiri dei diezaiokete (943 76 11 73).

KARTEL LEHIAKETA
Mendekoste jaietarako kartel lehiaketa deitu du Udaleko Jai batzordeak. Lanak aurkezteko epea martxoaren 20ra arte zabalik. 943 77 91 58.

LA VERGARESAKO LANGILE OHIEN BAZKARIA
La Vergaresako langile ohien bazkaria izango da Altzasu elkartearen hilaren 16an, 14:15ean. Hara joateko, autobusa irtengo da Ibargaraitik, 13:30ean. Deitu Jose Aranguren (943 76 47 20) edo Sabin Azkarteri (943 79 09 12) hilaren 12a baino lehenago.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Zapatu arratsaldean, eskulanak izango dira gaztetxoendako kartzelan, eta domekan, mahai-jokoak.

TXORIMALO LEHIAKETA
Erramu Zapatuan, martxoaren 22an, txorimalo lehiaketa egingo da. Izena ematea Jardunen martxoaren 15era arte. 943 76 08 19.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildoki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolajo (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN


Zezeagak binakako finala galdu zuen Gasteizen

Jose Mari Zezeagak ezin izan zuen binakako txapelketa eskuratu. 1992ko otsailaren 28an Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatutako finalean, Zezeagak eta Unanuek Bergara II.a-Arretxe bikotearen aurka galdu zuten. Herritar ugari izan zen Gasteizen Uberako pilotaria animatzen.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Mendibizkarra"



Gailurreria, gailurrak.

GORKA ORTEGA

ASTEKOFILMAK

'OCEAN'S ELEVEN'

ZUZENDARIA: STEVEN SODERBERGH. AKTO-REAK: GEORGE CLOONEY, MATT DAMON, BRAD PITT, JULIA ROBERTS.

HARIA. Aktore talde bikaina Steven Soderbergh (*Traffic*) zuzendariaren azken filmean. *Danny Ocean*-ek (Clooney) eta bere lagunek Las Vegas-ko kasinoetan lapurreta prestatuko dute.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

Sección Oficial
56 FESTIVAL DE VENEZIA

mentiras

Una película de JANG SUN WOO

LEE SANG HYUN - KIM TAE YEDN
JEON HYE JIN - CHOI HYUN JOO - HAN KYUN TAEK

www.golem.com

'MENTIRAS'

ZUZENDARIA: JANG SUN WOO. AKTOREAK: LEE SANG HYUN, KIM TAE YEON, JEON HYE JIN.

HARIA. Koreatik etorritako film honek zeresan ugari eman zuen Veneziako Jaialdian, sexu-harremani buruz duen ikuspegia gaitik. Esperientziarik gabeko le gazte batek ezkonduko esatutore ospetsu bat ezagutu, eta harreman sadomasokista baten murgilduko da harekin...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean (hilak 14), 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BERGARAN BULEGO BERRIA

KOROSI
INMOBILIARIA

BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97

LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 28

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

GIZARTE ZERBITZUAK / Administrazio bakoitzaren kargu geratuko diren Gizarte Zerbitzuak zehazten ditu hitzarmenak

Gizarte Zerbitzuen gaineko hitzarmena egingo dute Udalak eta Foru Aldundiak

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean egindako osoko bilkuran, Udalak eta Gizarte-kintzak sinatuko duten lankidetzaren testua onartu zuen Udalbatzak. Testuak zehazten dira bi erakundeetako bakoitzaren ardurapean geratuko diren Gizarte Zerbitzuak.

Udalak eta Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak lankidetzaren testua sinatuko dute. Hitzarmen horren testua astelehenean onartu zuen Udalbatzak, EAJ-EA eta PSE-EEren aldeko botoarekin eta Batasunaren abstentzioarekin.

Hitzarmen horren xedea da bi erakundeetako bakoitzak bere kargu hartuko dituen Gizarte Zerbitzuak zehaztea. Idatziak jasoz duenez, oraintsu arte ez da egon eskumen zehaztasun handirik, eta zerbitzuak sustatu, hornitu edo finantzatzeko zereginak bai bataz zein besteak egitea geratu izan da, edo biek batera.

Egoera horrek disfuntzioak ekarri omen ditu hitzarmeneko testuaren arabera. Hori horrela izanik, eta programen eta zerbitzuen gaineko eskumenak argitzeko egindako hainbat elkarrizketa eta akordioaren ondoren, 2001. urteko otsailaren 8an, eskumenak banatzeari buruzko akordioa izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiak eta EUDELEK.

Akordio horiek ondorengo ezarri dute: zein diren udal edo foru erantzukizuneko programa edo zerbitzuak, eta 2001 eta 2002. urteetako ekitaldietarako ordain ekonomikoa emateko sistema berria, eskumen eskema berrian oinarrituta.



2001eko eta 2002ko ekitaldietarako ordain ekonomikoa emateko sistema berria ere zehazten du hitzarmenak.

Erakunde bakoitzaren esku geratuko den zerbitzua zehazten du hitzarmenak

ESKUMEN BANAKETA

Akordioaren arabera, Aldundia- ren esku geratuko dira programa komunitarioak, adineko pertsonak, prestazio ekonomikoak,

Orain arte ez da egon eskumen zehaztasunik eta horrek disfuntzioak eragin ditu

ezinduenako laguntzak eta abandonatuta dauden eta tratu txarrak jasaten dituzten umeak zaintzea. Udalaren kargu geratuko da herri- tarrei euren gizarte eskubide eta

Udala arduratuko da herritarrei eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa ematen

baliabideei buruzko informazioa, balorazioa eta orientazioa ematea, bazterketaren kasuei aurrea hartzeko programak eta adineko pertsona autonomoendako pro-

gramak. Horrez gain, alde bien betebeharreri dagokienez, administrazio bakoitzak dagozkion zerbitzuen gastuak bere gain hartu beharko ditu.

Batasunak, berriz, abstentziko arrazoia zalantzetan oinarritu du. Batasuneko kideendako zalantza eta hutsune asko ditu hitzarmenak eta horrek ez alde ez aurka egitera eramanez. Bestalde, Diputazioak esparrua mugatu egin duela adierazi dute, gastu sozialak gora egin duenez, bere gain arlo batzuk hartu eta beste batzuk Udalaren kargu utziz.

Zaborrarendako edukiontzia, erabiltzeko moduan dagoeneko

MONIKA BELASTEGI

Eguaztenean hasi ziren zaborrarendako edukiontzia jartzen, eta gaurko, guztiak jarrita egotea espero zuten Mankomunitateko arduradunek. Denetara 119 edukiontzia jartzekoak ziren.

Zubiaurre aldean hasi eta herriko kaleetan barrena 119 edukiontzia jarri dituzte eguaztenean hasi eta egubakoitza bitartean. Horiek ziren, behintzat, Mankomunitateko arduradunen asmoak; gaurko, guztiak jarrita egotea.

Hori guztia kontuan hartuta, dagoeneko ezin izango ditugu orain arte bezala zabor-poltzak lurrean utzi. "Lurrean uzteko edukiontzian lagatzera" ohitzen hasi behar gara azaldu du Arantzazu Uribealgo arduradunak.

ZABORRA, 20:00ETATIK AURRERA

Horrez gain, zaborra 20:00etatik aurrera ateratzea komeni da (etxeko postontzian jasotako arau orriari, euskarazko testuak, akatsez, 20:00ak aurretik dakar), usainik ez egiteko. Eta poltsa ondo itxi beharko da.


Edukiontzia FCC enpresak astean hiritan hustuko ditu, eta lan hori gauzez egingo du.

Bestalde, zerbitzua osoagoa eta garbiagoa izateko, zaborraren edukiontzia hustuko dituen kamioiaren ondoren langile talde batek kanpoan egon daitezkeen poltsak jasotzeko ardura izango du.

Horrekin guztiarekin batera, edukiontzia garbi mantentzeko, hilean behin garbiketa sakona egingo zaie edukiontziei, eta urtean birritan, enpresa arduradunak edukiontzia hartu eta eramanez egingo ditu garbiketa berezia egiteko.



Eguaztenean hasi ziren zaborrarendako edukiontzia jartzen.



ARTXIBOA

Euskadiko Euskal Pilota Federazioa Nazioarteko Euskal Pilota Federazioan sartzeko premiatuko du Udalak Jaurlaritza.

OSOKO BILKURA/ Bi mozioak Batasunak aurkeztu zituen asteleheneko osoko bilkuran

Legedi antiterroristaren eta kirolaren gaineko mozioak

MONIKA BELASTEGI

Asteleheneko osoko bilkuran bi mozio aurkeztu zituen Batasunak: legedi antiterrorista ezabatzearen aldekoa bata, eta Euskal Pilota Federazioa nazioartean onartua izatekoa bestea. Lehenengoa onartu egin zuten; bigarren, aldiz, EAJ-Earen mozio alternatiboa.

Legedi antiterroristaren ezabaketaren aldeko ekimenaren oinarriko puntuak onartu zituen Udaltzaren asteleheneko osoko bilkuran. Mozioa Torturaren Aurkako Taldeak sinatzen du eta Batasunak aurkeztu zuen Udalan. Batasunak berak bat egin zuen mozioarekin, EAJ-EA abstenitu egin zen, eta PSE-EEk ezeko eman zion. Bozketan horren ondorioz, onartua geratu zen mozioa.

Hori horrela, Bergarako Udalak ekimenaren bederatzi puntuak onar ditzan eskatuko dio Espainiako Estatuari. Honako hauek, hain zuzen: pertsonen atxiloketa eta inkomunikazioa bost egunera luzatzea baimentzen duen artikulua ezabatzea; atxiloketak irauten duen artean pertsonen osasun fisikoa nahiz psikikoa bermatzeko, atxilotuak aukeratutako sendagileek ikusteko aukera izatea; atxilotutako pertsonaren osasun psikikoa nahiz fisikoa kaltetua izan bada, poliziek aurrera eramandako diligentsia oro deuseztatzea, eta ildo

horretan torturak salatu dituen pertsonaren inguruko ikerketak, atxiloketa aginduari eta instrukziori atxikitzea; epaile eta agintari judizialen aldetik sakoneko ikerkuntza ahalbideratzea eta salaketa jartzen den unetik egiazkoa den edo ez argitzea, horretarako sendagileen froga eta neurriak erabiliz; egoitza polizialak bideokameraz hornitzea atxilotuari ematen zaion tratua berri izateko; eta azkenik, tortura kasuak eragiteagatik zigortu dituzten funtzionarioen aldeko indultuak desagertzea.

EAJ-EA TALDEAREN ABSTENTZIOA

EAJ-EA koalizioa abstenitu egin zen botoa ematerako orduan, "ez baitugu ulertzen gaurkoan udaltzeko talde guztiek honetan bat egitea eta bihar beste edozein giza eskubideren urraketaren aurrean jasoko dugun erantzuna isiltasunarena izatea". Gehitu zuten, edozein kasutan giza kiaren eskubide oro zalantzarik eta mugarik gabe defendatu behar dira, eta ildo horretan legedi antiterroristak eskubide horiek urratzen dituen neurrian, euren taldearen gaitzespen osoa merezi duela. Baina ezin dela giza eskubide batzuen urraketa aldarrikatu, eta beste batzuen aurrean isilik geratu.

EUSKADIKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA NAZIOARTEAN ONARTZEAREN ALDE

Batasunak asteleheneko osoko bilkuran aurkeztutako bigarren

mozioa Iruñean jokatu den Euskal Pilotaren Munduko Txapelketaren gainean eta Euskadiko Euskal Pilota Federazioa, nazioartean onartua izateko ideiarekin gainean izan zen.

EAJ-EAk gai horren gaineko mozio alternatiboa aurkeztu zuen osoko bilkuran, eta horrelako kasuetan gertatzen den bezala, lehenik eta behin mozio alternatibo hori bozkatu zuten. Batasuna abstenitu egin zen, PSE-EEk baiezko botoa eman zuen, baita EAJ-EAk ere. Horren guztiaren ondorioz, koalizioaren mozio alternatiboak egin zuen aurrera Batasunaren beharrez.

Onartutako mozio horren arabera, Udalak ondorengo akordioa onar dezan premiatzen du Eusko Jaurlaritza: borondate politikoa adieraz dezala Euskadiko Euskal Pilota Federazioa Nazioarteko Euskal Pilota Federazioan sartzeko; betiere, gainerako kideek dituzten eskubide eta betebeharrak berekin.

Horrez gain, premiatzen ditu era berean Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioa, Euskadiko Euskal Pilota Federazioa eta Eusko Jaurlaritza berehalako urratsak ematera Euskadiko Euskal Pilota Federazioa Nazioarteko Federazioan sartzeko. Eta horrekin batera, Euskal Selektzioak Munduko Txapelketetan parte hartzeko, datorren abuztuaren 21etik 31ra Iruñean jokatu den Euskal Pilotaren Munduko Txapelketatik hasita.

Martitzenean, ELAren egoitza berria inauguratu zuten

MONIKA BELASTEGI

Martitzenean, ELAk Ortuibar ibilbidean duen egoitza berria inauguratu zuten. Jose Elorrieta sindikatuko idazkari nagusia eta Unai Martínez Deba ibarreko arduraduna izan ziren inaugurazio ekitaldian.

ELA sindikatua egoitza berria estreinatu du Ortuibar ibilbideko 26. zenbakiko beheko solairuan, eta joan den martitzenean inauguratu zuten.

Inaugurazio ekitaldira Jose Elorrieta sindikatuko idazkari orokorra hurreratu zen, baita Unai Martínez Deba ibarreko arduraduna ere. Azken hark lokal berrira ailegatu arteko ibilbide historiko laburra egin zuen, Torrekua auzoan alokairuan izan zuten lehen lokaletik hasi eta 1981ean San Pedro kalean 17 afiliatuk lehenengo lokala erosi zuten arte. Orain San Pedro kaleko egoitza utzi badute ere, hango izpiritu eta gogoia lokal berrira ekartzea nahiko luketela adierazi zuen.

Horrekin guztiarekin, Bergarako ELA sindikatua osasuntsu dagoela adierazi zuen: gaur egun, mila eta berrehun afiliatu ditu eta herriko lehenengo indarra dela gehitu zuen Deba ibarreko arduradunak.

SINDIKALISMOA OSASUNTU

Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak adierazi zuen sindikatua Bergaran duen osasun orokorra dela. Sindikatua hazitua esan zuen, batez ere emakumezkoen eta jende gaztearen afiliazioa dela-eta. Iaz, %6ko igoera izan zuen sindikatua Jose Elorrietak esan zuenez, 25 urteko beherakoen artean %16 eta emakumezkoen artean %10.

Datu horiekin, sindikatua orokorrean krisian daudela eta etorkizun iluna dutelako hainbaten ustea okerra dela gaineratu zuen. Gaur egun gizartearen sindikatua guztiz beharrezkoak direla gehitu zuen, "lanean dagoen behin-behinekotasuna, soldatetan dauden arazoak, lan-baldintzak... Horiek guztiak direla-eta, jendeak oraindik ere sindikatuen defentsa eta babesa behar du".

Horiek horrela, Ortuibar ibilbidean inauguratu duten egoitza berria sinbolo bat izatea nahi dutela esan zuen Jose Elorrietak; sindikatua etorkizunaren adierazle, hain zuzen ere. Azkenik, sindikatuen herri mailako osaketaren garrantziaz jardun zuen, haren esanetan, herri mailan ikusten direlako enpresetako errealitateak. Hainbat sektore eta tamainako enpresen errealitateak, hain justu ere.



Unai Martínez bailarako arduraduna eta Jose Elorrieta idazkari nagusia.

LABUR

Martitzenean, Ertzaintzak Kruz Gallastegi kalea itxi zuen, pakete arraro bat zela-eta

Joan den martitzenean, itxita eduki zuen Ertzaintzak Kruz Gallastegi kalea. Ertzaintzaren iturrien esanetan, 21:20 aldera, herritar baten telefono deiak Mitor taberna ondoan pakete arraro bat zegoela ohartarazi zituen.

Hori horrela, Ertzaintza hara joan zen eta segurtasunagatik itxi egin zuten Kruz Gallastegi kalea. Ertzaintzako artzulariek taberna ondoan zegoen paketea aztertu ondoren, arriskurik gabeko pakete huts bat zela konprobatu zuten. Horren ondoren, 22:45 aldera kalea berriz ere ireki zuten.

ELKARRIZKETA

JOSE MARI LARRAÑAGA/MIGUEL ALTUNA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

“ISO ziurtagiria eskuratzea ikastetxeak izan duen lorpen nagusienetakoa izan da”

MONIKA BELASTEGI

Jose Mari Larrañagak hamaika urte eman ditu Miguel Altuna Institutuko zuzendari. Hemendik gutxira ikastetxea utziko du. Lakuara joango da lan egitera, Lanbide Heziketako sailburuordearen kontseilari gisa.

Hamaika urte zuzendari, eta hamabi eskolan.

Aretxabaletatik etorri nintzen, han hamabi urte ibili ondoren. Oposizioak aterata nituen, eta Bergarara etortzea aukeratu nuen. Lehenengo urtean taillerreko irakasle ibili nintzen eta ikasturtea amaitzear zegoela, ekaineko azken egunean, zuzendari postua eskaini zidaten. Urdu-ri samar hartu nuen, etorri berriak izanik, oraindik jende gutxi ezagutzen nuelako eskolan. **Zein izan zen zure lehen erronka kargu berrian?**

Lehenik eta behin, zuzendaritza taldea osatzea. Eta ondoren, eskolaren eta bere inguruaren azterketa egiten hasi ginen: zein kanpo harreman zituen aztertzen, Udalarekin, enpresekin, beste ikastetxe batzuekin... Plan bat garatzeko, azken baten.


Horretarako, jaiotza tasaren gorabeherak jakitea ere komeni zitzaigun, ordurako esaten hasi baitzen jaitsi egingo zela ume kopurua. Hori horrela, oso garrantzitsua zen horrek eskolan izan zezakeen eragina jakitea.

Siadecok azterketa bat egin zuen Bergaran, eta horren arabera, garai hartan genuen umeen kopurua eta epe ertain eta laburrera herrian izango genuen kopurua jakin genuen. Azken baten, ume hutsunea ailegatzean zelan jokatu jakiteko. Azterketa egin genuen garaian 700 ikasle inguru zeuden; handik bost urtera erdira jaitsi zen, eta gaur egun, azpiko muturra jo du.

Zu zuzendari hasi zineneko garai hartan Elementala bigarren mailako ikastetxe kontsideratua zegoen. Zelan eman diozue buelta horri?

Bai. “Balio duenak balio du, eta ez duena balio, ‘Elemental’-era”. Buelta emateko gauza asko egin dira. Lehenik eta behin, errealitatea zein zen jakin, eta ondoren, errealitate hori zelan aldatu pentsatzeari ekin genion.

Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udala... Hainbat erakunderekin harremanetan jarri ginen instalakuntzak hobetzeko. Argi genuen eskolaren itxura aldatu egin behar zela, herrira zabaldu egin behar genuela, ezagutzera eman. Eta horre-



MONIKA BELASTEGI

“Balio duenak balio du, eta ez duena balio, ‘Elemental’-era. Uste horri buelta eman diogu”

tarako, harremanak oso garrantzitsuak dira.

Hortik hasi ginen, eta hamaika urte hauetan buelta eman diogu eskolak gainean zuen leloari. Eta gaizki dago nik esatea, baina gaur egun puntan dago.

Horrez gain, eskolaren irudiari buelta emateko prozesu honetan jabetu ginen DBH etortzeko zela, eta hamasei urtera arte jarraitu behar zutela neska-mutikoen eskolan. Baina orduko errealitatea hauze zen: ume kopurua behera egin behar zuen; bi ikastetxe publiko ginen, Batxilergo Institutua eta gu; eta azkenik, umeen %85ek ikastoletan ikasten zuten. Horren aurrean zer

“Trena noizean behin pasatzen da nor bere geltokitik eta batzuk hartu egin behar dira”

egin genezakeen? Ba, Bergarako eskola publikoa indartu.

Horrela, Batxilergo Institutuak, San Martin Eskolak eta guk proiektu komun bat osatzea pentsatu genuen, baita ere interesgarria izango zela fusionatzea Batxilergo Institutua eta gu.

Azkenik, fusionatu egin ginen, eta uste dut lorpen handia izan zela hori, DBH finkatu genuela. Gainera, DBHrako eskola berria egin genuen, Batxilergoko ikasleak eta gureak ikastetxe bakar baten egoteko.

Eta orain Batxilergo Institututik banatuta zaudete.

Lakuan izandako batzar batean jakin genuen LOGSEk auke-

“Lanbide Heziketak eta unibertsitate ikasketak osagarriak izan behar dira”

ra ematen duela Goi Mailako zentro egiteko. Mugitzen hasi ginen eta lortu egin genuen Goi Mailako zentro izatea. Horretarako, baina, baldintza bat jarri ziguten, Batxilergotik banatu eta Lanbide Heziketarekin soilik geratzea. **Ikaslan ere sortu zenuten.**

Oso urrats garrantzitsua izan zen. 1995en abian zegoen eta 13 zentrok osatzen genuen. Gaur, Bizkaia eta Arabara zabaldu da. Elkarte hori sortzeak lagundu egin zigun Lanbide Heziketako zentroek komunean genituen beharrak elkarrekin lantzeko.

Baina benetan zerbaitetan asmatu badugu, kalitate arloa lantzen izan da. 1995. urtean hasi

ginen kalitate prozesuarekin. Lau zentro hasi ginen: Martutene, Tolosa, Usurbil eta gu. Gure zentroetan kalitate arloa zelan hobetu aztertzen hasi ginen, eta hortik ISOren gaia sortu zen. Argi genuen ikastetxearen eta enpresen arteko harremana gero eta estuagoa izan behar zela. Eta ISO izatea oso baliagarri egingo zitzaigun, enpresaburuek jakin baitakite zer den ISO eta hori lortzea zenbat kostatzen den. Bi urtean garatu genuen ISOko prozedura guztia, eta 98an, ziurtagiria eskuratu genuen. Estatuko lehenak izan ginen lau zentroak.

Zuk esandakoa da Lanbide Heziketako ikastetxeen helburu nagusietakoa dela ikasleek bukatu ahala lana topatu behar dutela.

Halaxe da. Eta horretarako oso garrantzitsua da inguruko lantegiaren harreman estua izatea. Hori horrela ez bada, oso zaila izango da eskolak enpresetan eragina izatea. Kasu horretan, ikasleak euren kabuz joan beharko lirateke enpresetara, eta horrek ez du zentzurik. Hori argi ikusi izan dugu; erabakigarria da, eta horregatik dira gaur egun hain estuak gure harremanak inguruko enpresekin. Dena dela, gauza bat onartu behar dut: inguruko enpresetako arduradun asko ikastetxe honetan ikasitakoak direla, eta harremana izatea nahiko erraza egin zaigu.

Etorkizuna non ikusten duzu. Lanbide Heziketan ala unibertsitate ikasketetan?

Osagarriak dira. Ikasketa teknikoetarako, nire ustez, ikaslea derrigorrez pasatu beharko litzateke Lanbide Heziketatik heziketa teknikoak hartzeko; eta gero, unibertsitateara joango litzateke. Baina ez unibertsitateara orain planteatuta dagoen moduan: ikasle batek gure eskolan Goi Mailako ziklo bat egin ondoren, unibertsitateara joan eta diplomatura egiteko beste hiru urte behar ditu. Denbora luzeegia, hainbat ikasgai badakizkielako dagoeneko. Horregatik diot osagarriak izan behar direla. Hala izango balitz, ikasle gehiago joango lirateke unibertsitateara.

Teknikoak ez diren beste ikasketen kasuan, hainbatek ez du irtenbiderik. Unibertsitatea birplanteatu egin behar da, ezin garelako urtetik urtera promozio berriak parora ateratzen ibili.

Bazoaz.

Pena handia daukat eskola eta lankideak uzteko, hainbeste urtean harremanak estutu egiten direlako. Baina trena noizean behin pasatzen da eta batzuk hartu egin behar dira.



IPARRALDETIK BERTSOTAN

Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolari lapurtarrak izan genituen joan den zapatu gauean Artatse elkartean. Makina bat bertso bota zuten Ametsek eta Sustrai, eta tarteka trikiti soinuaz ere gozatu zuten han batu zirenek. Izan ere, bertsolariez gain, trikitilariak ere izan ziren afarian. Ezin esan daiteke afari berezi hark arrakastarik izan ez zuenik: behintzat, 80tik gora lagun batu ziren. Handik irteterakoan, bat baino gehiago ahaleginduko zen, seguru, bertso batzuk botatzen!



ZORTZI EMAKUME IBILI DIRA ELIKADURA IKASTAROAN

Jardunek antolatutako nutrizio ikastaroa joan den asteko eguenean bukatu zen. Proteinen, bitaminen, koipeen eta hamaika gairen gaineko apunteak hartzen harrapatu genituen ikasleak euren azken eskola orduan. Mireia Alberdi izan dute irakasle, eta zortzi lagun ibili dira, emakumeak guztiak. Ez du gizonezko bakar batek ere parte hartu. Zergatik ote? Ezin izan dugu hori jakin. Dena dela, euren burua eta euren etxeok ondo elikatze moduan daude nutrizio ikastaroan parte hartu duten zortzi emakumeak. Bada, hori, on egin!

MOZORROAK SARITU DITUZTE NAHIKARIN

Aratusteetan Nahikari tabernan ikusi zituzten mozorro politenak saritu dituzte. Koadrilaren saria Labegaraierako koadrilak eraman du: *Sugus* jantzi ziren, eta bildots bat irabazi dute. Banakakoa, berriz, Unai Colinasek irabazi du: bi lagunendako afaria. Zorionak, bada, eta hurrengo urterako prestatzen hasi!



AURTEN, HOGEITA ZAZPI KOADRILA HONETAKO EK

Kinto bazkaria egin zuten 1975ean jaiotakoek joan den zapatuan. Duela lau urtetik hona, urtero egiten dute bazkaria baina gero eta jende gutxiago joaten ei da; hortaz, badakizu, 1975ean jaiotakoa zara? Bada, hurrengo urtean ere badaukazu bazkarirako gonbidapena. Aurten, 24 lagun bakarrik animatu ziren. Edozelan ere, argazkian ikus daitekeen moduan, elkartu zirenak ondo majo ibili ziren!



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI
ASEGURUAK

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

BERGARARRAK MUNDUAN

JESUS MOZOS

44 URTE / LOREZAINA / SCHERZ (SUITZA)

"Izugarria da suitzarrek antolaketarako zelako gaitasuna daukaten"

AINZANE IRIZAR

Urte eta erdi darama Jesusek Serchz-en bizi izaten, Suitzako Argau kantoian, hain zuzen ere. Iparraldean dago kanto hori, Alemaniatik gertu. Suitzara joan aurretik, baina, duela 14 bat urte, Donostian lanean hasi zen, eta han inguruan bizi izan da: Tolosan hasieran, Igeldon ondoren, eta azkenik, Hondarribian.

Suitzako emakume bat eza-gutu zuen Donostian lanean ari zela, eta horregatik joan zen Suitzara bizi izatera. "Hondarribian bakarrik bizi nintzen, eta neukan lanak ez ninduen askorik asetzen", diosku Jesusek. Gauzak horrela, Suitzara joatea erabaki zuen.

Oso gustura dago Jesus Suitzan. Scherz-en bizi da, esan bezala. Oso herri txikia da, 600 bat biztanle dauzka eta nekazariak dira gehienak. Scherz-ko auzo baten bizi da: "Komunitate berezi samarra da ni bizi naizen auzoa; 1968an, 20-25 urte zeuzkan jende talde batek lurra erosi eta etxebizitzak eraiki zituen. Kooperatiba antzerako zer edo zer osatzen dute".

"Izugarria da ikustea antolatzeko zelako ahalmena duten suitzarrek. Adibi-

dez, garraio publikoaren kasuan: trenak edo autobusak ez dira minutu bat berandu iristen", azaldu digu Jesusek. Bestalde, ingurumenari dioten errespetua azpimarratu digu. Esaterako, errepideetan jartzen dituzten abiadura mugen helburua gehiago da inguru-

"Komunitate berezi samar baten bizi naiz; 1968an sortutako komunitate baten"

giroa ez kutsatzea, istripuak murriztea baino.

Ondo moldatu da Jesus suitzarren bizimodura; hango hizkuntza ikastea kostatu zaio gehien. Alemaniatik gertu egonda, alemanaren dialekto bat berba egiten dute: swizerdeutsch dialektoa, hain zuzen.

Aurrera begira, egunen baten bere herrira bueltatuko dela uste du Jesusek, baina oraingorik ez dauka plan zehatzik: "Denborak esango du", adierazi digu.



MINGAINARITIRAKA



Alberto Ormazabal

POSTARIA

Hogeita bat urte daroia Albertok herrixan gutunak partitzen. Zeiñek ez dau ikusi Korreoseko motorrian zakukadia hartuta? Gaiñera, banatu bakarrik ez, idatzia be gustatzen jako.

Zenbat aldiz jotzen dozu tinbria atari bakoitzian?

Zertifikau bat daukadanian bi aldiz jotzen dot. Batzuk, gaiñera, protestau egitten dabe tinbria jotzearen.

Oiñez bai, baiña motorrian be ibiltzen zara, ezta?

Bai, egunian 40 bat kilometro egitten dittut motorrian.

Eurotan, zenbat balio dau selluak? Normalak, 25 zentimo.

Zelako gutunak izaten die banatzen dittuzun gehixenak?

Bestiak beste, Bergarako industrialdietan ibiltzen naiz gutunak partitzen; horregaittik, gutun gehixenak bankuetakuak eta horrelakuak izaten die.

Internetek eta korreo elektronikuek kompetentzia egingo dutsue, ezta?

Ez dot uste. Uste dot eskuz idazten zien gutunak galduta zerela bestela be; ez dot uste horregaittik galdu dienik.

Zeuk idazten dozu gutunik?

Bai, asko gustatzen jat, gaiñera.

Eta maittasun gutunik?

Orain ez, baiña ni kanpuan ikasten nenguala, asko idazten notsan andriari.

Orduan harek be idatziko zotsun?

Iñoiz bai, baiña ez askorik.

Goizian kartero. Eta arratsaldian ze egitten dozu?

Ez dot aspertzeko denborarik eukitzen. Ortua daukat, ELAko kidia naiz, eta eskaltegixan be banabil. Gaiñera, etxeko lanak be egin bihar die.

Amets bat?

Pakia. Gure seme-alabak pakian bizi izeteko aukeria eukitzia nahiko neuke.

AINZANE IRIZAR

NIRE BIDAIAHURA / Imanol Fernández

COSTA RICA / 1999ko urrian

Lagun batek Costa Ricara joateko gogo zeukan, eta neu ere harekin joatera animatu nintzen. Gainera, ingelesez ez dakigunez, gaztelaniaz berba egiten duten tokietara joatea nahiago izaten dugu.

Hegazkina hartu eta San Jose-ra, hiriburura, joan ginen. Ez geneukan alde aurretik bidaia antolatuta. Hegazkinetako txartelak, lehendabiziko gaua pasatzeko hotela eta Tortuguero uhartean egondia, besterik ez. Tortuguero uhartea oso entzutetsua da, dortoka erraldoiak udazkenean arrautzak jartzera joaten direlako hara. Hiru egun egin genituen uharte hartan.

Costa Rica ia osoa ikusi genuen; edo ahal izan genuen gehiena, behintzat. Auto bat alokatu genuen han ibiltzeko. Iparraldea ikusi genuen lehendabiziki, eta kostaldea ikusiz hegoaldera jaitsi ginen.

Parke natural mordo dago Costa Rican, izugarria da han dagoen landaretza. Bat aipatzearen, Manuel Antonio izeneko parkea nabarmenduko nuke: hura ikustea merezi du, dudu barik.

Parkeez gain, sumendi ugari ere badago; horietako bat aktibo dago eta huraxe ikustera joan ginen. Goraino igo ginen. Izugarria da laba sumenditik zelan ateratzen den eta maldan behera zelan jaisten den hain gertutik ikustea, eta ateratzen duen soina entzutea.

Kostaldea ere zoragarria da; toki bat gomendatzekotan, Puerto Viejo aipatuko nuke, oso herri polita, benetan.

Bestalde, hango jendearekin oso tratua izan genuen. Bidaian izan genuen arazo bakarrenetakoa izan zen errepideak ez direla batere onak, eta bide seinalerik ere ia ez dagoela. Hirian nahiko miseria ikusi genuen eta arriskutsu samarra dela ere esan ziguten. Bestela, gomendatzeko moduko bidaia da.

AINZANE IRIZAR



Sumendi ugari dago Costa Rican.



"Sumendi bat gertutik ikusteko aukera izan genuen"

"Errepideak oso txarrak dira, eta ia ez dago bide seinalerik"

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA. Tf. 943 76 23 79

Mujika gozotegia



Bizkotxoak Erreilenoak Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Muguruza eta Gutiérrez senior bikoteak 14-22 galdu zuen martitzenean Aretxabaletako Errasti anaien aurka.

PILOTA

Muguruza-Gutierrez Debarroko Pilota Txapelketako finalerdietara

Martitzenean, Bergarak 1-2 galdu zuen Aretxabaletaren aurka Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Debarroko Txapelketaren barruan, Bergara KEko pilota sailak 1-2 galdu zuen martitzenean Aretxabaletaren aurka Udal Pilotalekuan. Jardunaldi bakarra falta da txapelketa amaitzeko, eta Muguruza-Gutiérrez senior bikotea finalerdietarako sailkatu da.

Bergararen eta Aretxabaletaren arteko norgehiagokan kadete mailako partidua bakarrik irabazi zuten bergararrek. Jon Larrañagak eta Ibai Altunak osatutako bikotea 22-6 nagusitu zitzaion Aretxabaletako bikoteari. Gazte mailan, Asier Larrañagak eta Beñat Iñarrak 6-22 galdu zuten aretxabaletarren aurka. Eta senior mailan, berriz, Ander Muguruzak eta Igor Gutiérrezek ezin izan zituzten Errasti anaiak mendean hartu. Aretxabaletan eta Bergaran jokatuak partiduetan Errasti anaiak nagusitu ziren. Martitzeneko partiduan 22-14 irabazi zuten. Joan den urtean, aipatutako bikoteak izan ziren aurrez aurre Debarroko Txapelketako finalean, eta orduan ere Errasti anaiek 22-21 irabazi zie-

ten Muguruzari eta Gutiérrezi, Antzuolan.

Datorren astean, txapelketa azken jardunaldia jokatu du Bergarak Olalde taldearen kontra, Antzuolan. Bergarako kadete bikoteak oraindik ere finalerdietarako sailkatzeko aukera izan dezake. Udal Pilotalekuan jokatuak partiduan bergararrek 12-22 galdu zuten antzuolarren aur-

ka, eta, beraz, puntu alde hori gainditu egin beharko dute finalerdietarako sailkatzeko. Kadete mailan, Eskoriatzako bikotea sailkatuta dago dagoeneko. Antzuolako taldeak gazte mailako bikoterik ez duenez, kadete eta senior mailako partidua jokatu dira martitzenean.

FINALAK, BERGARAN

Finalerdietan Debagoieneko eta Debarroko bikoteak gurtzatuko dira. Seniorretan, Bergarak Elgetaren aurka jokatu du ziuurten. Reyes Azkoitia Bergarako entrenatzailearen arabera, "Ubera eta Laskurain bikote indartsua da eta nahiago genuen finalerdietan Elgetako bikotea saihestea. Hala ere, haiei irabaziz gero, urrats handia eman dezakegu txapelketa eskuratzeko".

Egindako txapelketari buruz zera dio Reyesek: "Seniorretan, dezepzio txikia hartu dugu Errasti anaiei ezin irabazi izanagatik, eta kadete bikoteari beharbada karakter pixka bat falta izan zitzaion Antzuolaren aurka".

Finalerdiak martxoaren 19an eta 26an izango dira. Eta finalak Bergaran jokatu dira aurten, apirilaren 7an, hain zuzen ere.

Antzuolari 11 tantoren aldearekin irabaziz gero, kadete bikotea ere sailka daiteke

Debarroko Txapelketako finalak Bergaran jokatu dira apirilaren 7an

Senior eskubaloit taldea, txapeldun izateko gertu

E.M.

Aste bukaeran jokatuak bi partidua irabazi eta gero, senior mutilen eskubaloit taldeak liga txapelketa eskura dezake, domekan Arrasaten irabazten badu. Orgazen taldeak ezin du hutsik egin.

Bergarak bi partidua jokatu zituen aste bukaeran eta biak irabazi zituen. Zapatuan, Andoainen, Edu Orgazek zuzentzen duen taldea 26-30 nagusitu zitzaion hango Leitzararen taldeari. Eta domekan, Bergarak 26-23 irabazi zion Urrietari, Labegarietako kiroldegian. Bietan joko ona azaldu zuten mahoneroek. Liderra izan arren, Bergarak oraindik ez dauka ziurtatuta igoera faserako sailkapena. Hortaz, hil edo biziko partidua jokatu dute Edu Orgazek zuzentzen duen taldearen aurka domekan, Iturripen, 11:30ean.

Bergarako entrenatzailearen hitzetan, "Arrasatek ez du ezer jokoan, sailkapenaren erdialdean dagoelako, baina derbi guztien moduan, partidua gogorra izango da. Gu ezinbestekoa dugu garaipea txapelketa eskuratzeko". Azken jardunaldia arte lau talde (Arrate, Egialde, Donibane eta Bergara) izango dira lehian txapelketa irabazi eta igoera faserako jokatzeko bi plazak eskuratzeko. Orgazek dioenez, "aurreko aste bukaeran bezain serio aritzen bagara domekan, txapeldun izateko aukera handiak ditugu".

BI PARTIDU KIROLDEGIAN

Eskubaloit saileko bi taldeek jokatu dute oraineko asteburuan: kadete mailakoek Tolosa hartuko dute zapatuan, 16:00etan, eta domekan, Bergara eta Aloña Mendi izango dira aurrez aurre Labegarietako kiroldegian, 10:00etan.

Shotokan taldeko karatekak, bikain Gipuzkoako Txapelketan

E.M.

Shotokan karate taldeak emaitza bikainak lortu zituen domekan Lasarten jokatuak Gipuzkoako Txapelketan. Jon González, Markel Larrañaga eta Oier Tola aurreneko postuetan izan ziren.

Probintzia osoko 93 karateka izan ziren lehian domekan Lasarteko kiroldegian. Gazte mailan, katean, Markel Larrañagak bigarren postua eskuratu zuen eta Oier Tola, berriz, hirugarren sailkatu zen. Kunitetan edo borroketan, aldiz, bergararren arteko

finala izan zen eta Jon González Markel Larrañagari nagusitu zitzaion. Hirurek ere Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte datorren martxoaren 24an, eta Josean Iñarra euren prestakuntza learen arabera, Espainiako Txapelketarako sailkatzeko aukera ere izan ditzakete.

Bestalde, Raquel Blanco eta Miren Laskurain gazte mailako karatekek ere txapelketa ona egin zuten Lasarten. Hamasei lagunen arteko norgehiagokan, biak ere lehenengo zortzien barruan sailkatu ziren. Shotokan taldean aurreko diren alebin mailako 14 gazte ere izan ziren Lasarten.



Argazkian Josean Iñarra prestatzailea bere ikasleekin, Lasarten.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Amilotox-Eri.....	4-10
Bar Ugarte-Bicip. Igartua.....	11-4
Mongatxurak-Kanpazar.....	10-4
Komando Piperrak-Bar Ganbara.....	11-4
A Ze Flaxa-Agirrebeña.....	3-0

B MULTZOA

Vacalouras-Aterpe.....	4-2
THT-Txipiron.....	3-4
Amoskibar-Bar Bedarreta.....	4-8
Etengabe-Irubide.....	5-4
Bar Canalejas-Artekale pizzeria.....	10-3

C MULTZOA

Ortzi-Pagomendi.....	0-6
Patxaran-Bayer.....	5-5
Artusamak-Timofonika.....	7-4
Argandolas-Ortzi.....	3-4
Errotagain-Dedo Pafarru.....	9-4

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Mongatxurak.....	46	19
2. A Ze Flaxa.....	46	19
3. Bar Ugarte.....	41	19
4. Eri.....	31	19
5. Komando Piperrak.....	26	19
6. Kanpazar.....	21	19
7. Bar Ganbara.....	13	19
8. Amilotox.....	8	19
9. Biciprecisión Igartua.....	8	19
10. Agirrebeña.....	0	19
11. Torrekua.....	0	0

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta.....	52	18
2. Bar Canalejas.....	38	18
3. Amoskibar.....	27	18
4. Aterpe.....	27	18
5. Txipiron.....	26	18
6. Vacalouras.....	25	18
7. THT.....	20	18
8. Irubide.....	19	18
9. Artekale pizzeria.....	15	18
10. Etengabe.....	0	18

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain.....	46	16
2. Artusamak.....	35	16
3. Bayer.....	26	16
4. Argandolas.....	25	16
5. Dedo Pafarru.....	25	16
6. Pagomendi.....	25	16
7. Ortzi.....	13	16
8. Patxaran Team.....	7	16
9. Timofonika.....	6	16
10. Bildurbarek.....	0	0

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Bicip. Igartua-K. Piperrak. **Bayer**

11:30: Vacalouras-Bayer. **Kanpazar**

12:30: Patxaran-Kanpazar. **Vacalouras**

17:30: A Ze Flaxa-Pagomendi. **Bedarreta**

18:30: Bar Bedarreta-Dedo Pafarru. **Errotag.**

19:30: Errotagain-Amoskibar. **A Ze Flaxa**

DOMEKAN, BARRUAN

11:30: Artekale-Bar Ganbara. **Amilotox**

12:30: THT-Amilotox. **Artekale**

16:30: Argandolas-Eri. **Bar Ugarte**

17:30: Bar Aterpe-Bar Ugarte. **Eri**

ARGI IBILI!

AGIRREBEÑA JATETXEA, TXAPELKETATIK KANPO

Antolaketa batzordeak Agirrebeña jatetxea taldea kanporatu egin zuen azken jardunaldian, A Ze Flaxaren kontrako partidura ez aurkezteagatik. Kopa txapelketan Irubide taldearen aurka jokatu behar zenez, Irubidekoak sailkatuta daude dagoeneko bigarren kanporaketa jokatzeko.

KOPA TXAPELKETA ETA LIGAKO 'PLAY-OFF'-AK HASIKO DIRA

Liga amaizuta, oraingo aste bukaeran, Kopa txapelketa eta ligako play-off-eko partiduak izango dira Labegaraietan. Zapatu goizean, Kopa kanporaketak jokatu dira eta arratsaldean play-off-ak. Domekan, kopako beste hiru partidu iragarri dituzte. Eta, horrez gain, Bar Aterperen eta Bar Ugarteren arteko play-off kanporaketa izango da.

GORA ETA BEHERA

PAGOMENDI ETA ERI
C multzoan, Pagomendi taldeak 6-0 irabazi zion Ortziri azken jardunaldian. Pagomendikoak angiozartarren aurretik sailkatu dira. A multzoan, Erik ere ez zuen inolako arazorik izan Amilotox mendean hartzeko (10-4).

AGIRREBEÑA ETA TIMOFONIKA
Azken jardunaldira heldu eta Agirrebeña jatetxea kanporatu egin dute. Kopa txapelketatik kanpo geratu dira. Bestalde, Timofonikak bi partidu besterik ez ditu irabazi. Zapatuan, Artusamaken kontra galdu zuten (4-7).

GAINBEGIRADA

SASKIBALOA

Datac eta Lobos Cantabria taldeen arteko saskibalo partidua eguaztenean Bergaran

Donostiako Datac Gipuzkoa Basket eta Lobos Cantabria saskibalo taldeak aurrez aurre izango dira eguaztenean, martxoaren 13an, kiroldegian, 19:00etan (sarrera doan). Moncho Monsalvek zuzentzen duen Lobos Cantabria ACB ligan ari da eta Datac, LEBeko 2. mailan.

IGERIKETA

Kanpoko igerilekua ez kentzeko, sinadura batzea egingo du Igeri Elkarteak

Igeri Elkarteak sinadura batzea egingo du aste bukaeran, kanpoko igerilekua ez kentzeko eskatzeko. Zapatuan, hilaren 9an, San Martin plazan sinadura batzea egingo da, 12:00etan. Era berean, herriko hainbat tabernatan ere sinadurak batuko dira.

GOLF

Golf ikastaroak Urturin, Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, golf ikastaroak izango dira Urturin martxoaren 16an eta 17an eta 23an eta 24an. Hasiera eta hobe-kuntza ikastaroak izango dira. Argibideak eta izenematea Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

ESKIA

Pol-Pol Mendizale Taldeak eskiatzera joateko irteerak antolatu ditu

Pol-Pol Mendizale Taldeak eskiatzera joateko irteerak antolatu ditu. Alde batetik, datorren aste bukaeran, Baqueirara joateko aukera izango da; eta, bestetik, Aste Santuan, martxoaren 29tik apirilaren 6ra, Alpeetara irteera egingo dute. Argibideak, 943 76 48 51 zenbakian.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Amaikak Bat
Neskak. Zapatua. 11:00. Ipintza.

Bergara-Soraluze
Lehen erregionala. Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Bergara-Pasajes
Ohorezko mailako gazteak. Domeka. 11:30. Ipintza.

ESKUBALOA

Bergara-Tolosa
Kadete mutilak. Zapatua. 16:30. Kiroldegia.

Bergara-Aloña Mendi
Gazte mutilak. Domeka. 10:00. Kiroldegia.

SASKIBALOA

Bergara-Arrasate
Gazte mutilak. Zapatua. 16:00. Mariaren Lagundia.

PILOTA

Udaberriko txapelketa
Bergara-Zurriola (Bigarren mailako kadeteak)
Egubakoitza. 19:30.
Angiozarko Arbiaska pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 2 Gure Txokoa 1 (Preferente maila)
Kilimon 4 Bergara 2 (Lehen erregionala)
Antzuola 0 Bergara 0 (Neskak)
Beasain 0 Bergara 1 (Ohorezko m., gazteak)
Bergara 2 Antoniano 3 (Lehen m., gazteak)
Bergara 3 M. Bihotza 2 (Ohorezko m., kadeteak)
Eibartarrak 1 Bergara 5 (Bigarren m., kadeteak)
Azkuene 3 Bergara 4 (Infantilak)

ESKUBALOA

Leizaran 26 Bergara 30 (Senior mutilak)
Bergara 26 Urnieta 23 (Senior mutilak)
Aloña Mendi 18 Urnieta 23 (Kadete mutilak)

SASKIBALOA

Goierri 84 Bergara 64 (Senior mutilak)
Bergara 34 Aloña Mendi 44 (Kadete mutilak)

PILOTA

Debarroko Txapelketa
Bergara 22 Aretxabaleta 6 (Kadeteak)
Bergara 6 Aretxabaleta 22 (Gazteak)
Bergara 14 Aretxabaleta 22 (Seniorrak)

JOKOZKANPO

Iñigo Ziarsolo

SASKIBALOI JOKALARIA

Bergaran jokatu ondoren, lehen maila nazionaleko Kenci Arrasate taldean dabil Iñigo aurten. 1,82 metro luze da.

Zer moduz Arrasaten?

Oso gustura. Bergarako taldean hainbat urtean jokatu ondoren, joan den urtean jokatzeari laga nion, atsedeen pixka bat hartzearren, batik bat. Udan, Arrasateko taldearen deia jaso nuen, eta maila horretan lehia-tzeak motibatu egiten ninduen, baietz esan nuen. Zein postutan jokatzeko duzu?

Antolatzaile lanetan hasi nintzen, baina azkenaldian eskolta postuan nabil. Hasieran, kostatu egin zitzaidan taldearen jokora egitea bloke bat eginda zegoelako, baina Iker Zubiria entrenatzaileak konfiantza eman dit eta gustura nabil. Puntu asko egitekoa zara?

Egun ona daukadanean baten batzuk egiten ditut. Boladaka izaten da hori.

EBA ligara igotzeko aukerarik badaukazue?

Egia esateko, igoera fasean nahiko justu gabilta, hor ari garen taldeen arteko aurretiko emaitzak kontuan hartzen direlako. Igoera lortzea ia ezinezkoa da, baina edozein talderi irabazteko gauza garelako ikusi zen ligako lehen fasean.



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

M

MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA

ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak | Era guztietako moldurak
Sarrailak | Apalak
Heldulekuak | Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



Umore handiz, Virginia Imazek emakume eredu irreal eta lortezinen gainean jardungo du antzezlanean.

'Modelo Klowntrapublizitarioa' lanean iragarkietako emakume ereduak landuko ditu

Oihulari Klown taldearen saioa bihar Novedadesen

MONIKA BELASTEGI

Oihulari Clown taldeak bere ikuskizunetako bat egingo du bihar, zapatua, Novedades aretoan; *Modelo Klowntrapublizitarioa* lana egingo du bihar, zapatua, 22:30ean, Novedades aretoan. Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak antolatu du antzerki emanaldia, martxoaren 8arekin bat egin nahian.

Oihulari Clown taldeak bere ikuskizunetako bat egingo du bihar, zapatua, Novedades aretoan; *Modelo Klowntrapublizitarioa*, hain zuzen ere.

Istorio horretako protagonista *Pauxa* -Virginia Imaz- dugu. Telebistako publizitate iragarki bat egiteko aukeraketa batera etorri da. Ikusleen artetik pertsona batzuk hartu eta antzerako beste aukeraketa batzuetako esperientziak, beldurrak, zalan-

tzak... kontatuko dizkie. Horrela, *klown* jolasaren umorea, samurtasuna eta poesia direla medio, gaur egun telebistan eta iragarri grafikoetan azaltzen diren hainbat emakume ereduren irudiak azaltzeko aitzakia izango du; batez ere, emakume eredu irreal eta lortezinak eta erabat zaharkitutako harreman-balioen mezuak dauzkaten zenbait iragarkirenak.

VIRGINIA IMAZ

Modelo Klowntrapublizitarioa-ren egilea Virginia Imaz bera da. Helduen hezitzaile, istorio kontalari, idazle, antzezle eta eszena zuzendari dugu, eta bergararren artean nahiko ezaguna da. Hamazazpi urte baino gehiago daramatza pailazo lanetan, eta 1998ko ekainetik 2000ko abendura arte, Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan ibili zen lanean, Cirque du Soleil-en *La Nouba* ikus-

kizunean. Horrez gain, azken hogeitaz berrogei ikuskizun zuzendu ditu klown antzerkian zein ahozko narrazioan, bihar Novedades aretoan egingo duena, esaterako. Bestalde, Txalo Produksioak taldeko *Banbulo* ikuskizunean *Banbulo* txakurra da Virginia Imaz.

MARTXOAREN 8AN, ANTZERKIA GAZTETXEAN

Gaztetxean ere antzerki emanaldia antolatu dute Emakumearen Eguna ospatzeko: *Ni, ni neu naiz* antzezlan, hain zuzen ere, Matxin komikoaren eskutik. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, kartzela zaharrean. Duela hilabete gutxi, emakume taldea eratu zuten hainbat lagunek gaztetxearen inguruan, eta emakume talde horrek antolatu du, hain justu ere, gaur gaueko antzezlan.

Alberto Illescasen olio erakusketa kultura etxean

MONIKA BELASTEGI

Martxoaren 12tik 24ra bitartean, Albero Illescas toledoarrak olio erakusketa egingo du kultura etxean. Hogeita hamahiru lanek osatzen dute erakusketa, gai askotariko lanek, hain justu.

Datorren martitzenean, martxoaren 12an, beste erakusketa bat irekiko dute kultura etxean, Talavera de la Reinako Alberto Illescas Moreno pintorearen erakusketa, hain justu. Hogeita hamahiru oliok osatzen dute Illescasen erakusketa; batzuk mihisea gainean daude margotuta eta beste batzuk, aldiz, taula gainean.

Gaie dagokienez, oso zabala da pintore toledoarraren erakusketa: natura hilak, animaliak, loreak, paisaiak... Gai ugari lantzen ditu Alberto Illescsek. Horrez gain, kolore bizi eta kontraste handikoak, fondo neutroak, eta gauza fantastikoen eta ohikoaren arteko nahaske-


tak etengabe agertzen dira haren lanetan.

Erakusketa bi zatitan banatuta egongo da: batetik, erretratu, natural hil, paisaia eta marrazki zehatzez adierazitako beste gai batzuk egongo dira; bigarren atalean gai berberak forma galduz joango dira, eta forma arraroak hartuko dituzte.

Erakusketa martxoaren 24ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: astelehenean egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

FIDEL CASTROENDAKO LANAK

Gaur egun margolanak egiten ditu, baina hasieran -1984. urtean- zeramika artistikoa margotzen hasi zen. Oso esku ona zuela eta, berehala hasi zitzaizkion partikularrak enkargu eske, besteak beste, Fidel Castro, John Major eta New York-eko alkate Rudolph Giuliani. 1993a ezkerreko pinturan dihardu buru-belarri.



'Gandhi', Illescsek 1996an egindako lana.

Domekan, hileroko kontzertua egingo du Udal Musika Bandak pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Udal Musika Bandak hileroko kontzertua egingo du domekan, martxoaren 10ean, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Bost lan eskainiko dituzte bandako kideek, eta zuzendari lanetan Alfredo González Chir-

laque arituko da, ohi bezala. Egingo duten lehenengo lana *Sagarpe* martxa izango da. Obra hori Alfredo González Chir-laquek konposatu du, Sagarpe elkarte kideek halaxe eskatuta, eta domeka eguerdian Udal Pilotalekuan egingo duten emanaldian joko dute lehenengo aldiz.

Martxa horrez gain, gainerako lau obrak honako hauek izango dira: Ludwig Van Beethoven-en *Bostgarren Sinfonia*-ko lehenengo denbora; Wolfgang Amadeus Mozart-en *Martxa Turkoa*; Luigini-ren *Ballet Egyptien* balet *suite*-a eta Haan-en *Oregon* fantasia.

Pintura lehiaketa antolatu du Bergarako UNED zentroak

MONIKA BELASTEGI

Bergarako UNEDek pintura lehiaketa antolatu du, hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldi sortaren barruan. Edonork har dezake parte lehiaketan, eta margolanetan erabili beharreko teknika eta estiloak libreak izango dira. Hiru sari egongo

dira: lehenengoa, 3.000 euro (500.000 pezeta); bigarrena, 1.500 euro (250.000 pezeta); eta hirugarrena, 750 euro (125.000 pezeta).

Pintura lanak ikastetxeko idazkaritzan utzi beharko dira, San Martin Agirre plaza 4an, hain justu ere. Lehiaketa horretara aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da.

E, TXO!

**TXOTXONGILOAK
PRESTATZEN**

Txotxongilo Lehiaketari begira, prestatze lanak hasiko dituzte bihar, zapatua, Kuadrillategikoek. Astero moduan, 15:30ean jarri dute hitzordua Udal Euskaltegiko egoitzan.

Gogora ezazue Erramu Zapatu Egunean izango dela, urtero moduan, Txotxongilo Lehiaketa. Martxoaren 23an izango da aurten Erramu Zapatu Eguna. Hortaz, badakizue, hasi prestatzen, ez da askorik falta-eta!

LIBURUTEGIA OSATZEN

Gazte Asanbladakoek liburutegi bat osatu nahi dute gaztetxean. Herriko gazte guztiendako izango da zabalik. Horretarako, etxean alferrik dituzuen liburuak gaztetxera eramateko eskatzen dizuete Gazte Asanbladakoek. Izan ere, norberarendako interesekoa ez den liburua baliteke beste norbaiti ondo etortzea. Horrela, etxean alferrik eduki beharrean, liburuak herriko gazteen eskura lagatzeko aukera daukazue.

**EGUAZTENEAN, FILM
EMANALDIA GAZTETXEAN**

Astero moduan, eguaztenean, 22:00etan, film bat eskainiko dute Bergarako gaztetxean. *Chacal* filma ikusteko aukera izango dugu. Gogora ezazue domeka arratsaldean ere, 18:00etan, film bera ikusteko aukera dauka zuela.

ZAPATUAN, KONTZERTUA

Bihar, zapatua, kontzertua izango dugu gaztetxean, 22:30ean hasita. Bi talde arituko dira: Espezial Guest urretxuarak eta Kokein eibartarrak, hain justu ere.

GUREGAIK/ GAZTETXEKO LANAK

Gaztetxea txukundu du gazte talde batek

AINTZANE IRIZAR

Iaz, urrian, hainbat lan egiten hasi ziren gaztetxeoak. Egoera arriskutsua zela-eta, handik ateratzeko agindu zien Udalak gazteei. Horrekin batera, Udalak berak konpontzeko konpromisoa hartu zuen.

Udalaren konpromisoarekin pozik daude gaztetxeoak, baina Udalak berrikuntza horiek egin bitartean gaztetxea txukun edukitzeko, hasitako lanekin jarraitu zuten gazteek. Betiere, arkitecto baten aholkularitza izan dute gaztetxeoek, egin dituzten lan guztiak behar bezala betetzeko. Horrela, hainbat pareta bota zituzten eta egoteko leku atsegi-

nago bat egin nahi izan dute. Auzolanean lan egin dute, talde-lana izan da, azaldu digutenez. Aisialdiko ordu asko eta asko pasatu dituzte gaztetxea txukuntzeko lanetan gaztetxeo lagun horiek.

Eraikinaren barruko egituraren banaketa berria egiteaz gain, paretak margotu, lurra lautu eta garbiketa sakona egin dute, besteak beste.

Gauzak horrela, gustura daude gazteok egindako lanarekin, eta orain, "egoteko eta gure jardueretarako toki atseginagoa" daukatela azaldu digute.

Taberna ere badauka gaztetxeak, eta antolatzen dituzten ekintzak finantzatzeko diru iturri da taberna hori.



Gazte talde bat ibili da gaztetxea txukuntzen.

AINTZANE IRIZAR

LOTSABARIK/ Maite Alonso

“Umetan, agintzea gustatzen zitzaidan”

AINTZANE IRIZAR

Oso lotsatia dela esan digu Maitek, eta beharbada horregatik etorriko zen gurera lagun batekin. Informatika oso gustuko du Maitek, eta, batez ere, Interneten nabigatzea gustatzen zaio.

• **Txikitan, zer izan nahi zenuen?**

Irakasle. Izan ere, agintzea asko gustatzen zitzaidan, *mandona* samarra nintzen.

• **Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?**

Espero dut ezkondata, umekin eta lan on baten jardungo dudala.

• **Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?**

Ikasteko; ikasi barik ez dudala ezer ere izango.

• **Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**

Askok esaten dute *pelota egitea* dela taktikarik onena, baina niri ez dit ezertarako balio. Zerbait lortzeko era bakarra eskolan nota onak ateratzea izaten da.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?**

Osasunari eta maitasunari.

• **Zure bertute bat?**

Oso alaia naizela. Oso baiko-rra naiz, gauza guztiari ikusten diet bere alde ona.

• **Eta hutsune bat?**

Askotan, behar ez denean ber-

ba egiteagatik, hanka hondoraino sartzen dudala.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Norbait bizkarretik gaizki esaka jarduteak; nahiago dut esan beharrekoak aurpegira esatea.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Begiak.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**

Aurpegiari eta begiei.

• **Zer egiten duzu seduzitzeko?**

Uf! Ezertxo ere ez. Oso lotsatia naiz, gainera.



• **Fantasia sexual bat, zeinekin eta non?**

Uste dut ez daukadala fantasiarik, baina edukita ere, ez nizuke horrelakorik kontatuko.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoa • ZALETASUNAK: Internet eta musika • LIBURU BAT: Ez dut batere irakurtzen • FILM BAT: 'Titanic' • MUSIKA TALDEA: Cafe Quijano • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARRENETXETIK



Xabier Ibarzabalen ustez, gaixoak bere autonomia dauka eta bere burua defenditzeko baliabideak ditu gaur egun.

Ibarzabal: "Gaixoa bere eskubideak aldarrikatzeko gai da gaur egun"

EDU MENDIBIL

Xabier Ibarzabal mediku donostiarrak *Crisis de valores en la actualidad y nuevas propuestas* izenburuko hitzaldia egin zuen joan den egunean San Joxepe elkartean. Hitzaldi aretoa jendez gainzka zegoela, aldatzen ari diren gizarteko ereduaren gainean egin zuen berba Ibarzabalek.

Orain dela urte batzuetako larderiako erregimen politikoarekin konparatuz gero, gauza asko aldatu direla adierazi zuen Xabier Ibarzabalek: "Gizarte eredu bat suntsitzen ari da eta ez dakigu zehatz-mehatz zer datorren atzetik. Duela gutxi arteko gizarte ereduaren agintzera eta obeditzera erakutsi digute, baina hori aldatuz doa. Apaizek, militarrek, politikoez edo epaileek prestigioa galdu dute. Familia barruan ere gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ez da lehengoa modukoa eta beste horrenbeste gertatu da senar-emazteen edo bikoteen kasuan. Lehengo egoe-

ra guztiz bertikala zen, baina orain orekatzen ari da. Eta eredu baten krisiak ez du zertan negatiboa izan behar. Krisia beharrezkoa da zerbait ona etortzeko".

BIOETIKAREN AGERPENA

Ibarzabal Donostiako Matia Fundazioan ari da lanean eta hango Bioetika batzordeko kide da. Bere esanetan, "bioetika gauza berria da, hainbat balioren krisiaren ondorioz sortu baitzen duela 30 bat urte AEBetan. Sasoi hartan, beltzen giza eskubideak edo emakumeenak aldarrikatu zituzten Ipar Amerikan, eta osasun arloan gaixoek ere zeresana bazutela konturatu ziren. Esate baterako, orduan hasi ziren informatutako baimenak eskatzen ebakuntzak egin aurretik. Bestalde, hasiera baten giltzurrunetako dialisia egiteko orduan 60 urtetik gorakoak baztertu egin zituzten, eta gero ikusi da oso emaitza onak lortzen direla edadetuekin. Gaur egun gaixoa bere eskubideak aldarrikatzeko gai da eta ezinezkoa da aipatutako bereizketa horren modukoak egi-

tea. Espainiako Estatuan ere medikuaren erabakiak eztaba daezinak ziren orain dela gutxi arte, baina gaur posible da mediku bat epaitegira eramatea. Azken baten, gaixoak badu bere autonomia eta bere burua defenditzeko baliabide gehiago ditu. Medikuen eta gaixoaren arteko harremana orekatuz doa".

Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale guztietan etika batzordeak ei daude. Ibarzabalen arabera, "herritarrek oraindik ez dute horren berri, baina EAE estatuko potentzietako bat da etika batzordeei dagokienez. Bioetikaren helburu nagusia medikuaren eta gaixoaren arteko harremana ahalik eta arinena izatea da. Helburu demokratikoa eta positiboa dela uste dut. Lehengo zerbait hobea lortzeko aldatu nahi badugu, ongiatorria izan dadila. Osasun zerbitzu onak dauzkagu hemen, baina teknologia aurreratuz doa eta aurrekontua mugatua izaten da. Osasunaz gain, badira beste gauza batzuk, eta politikoak administratzeko daude".



Debagoieneko ahalmenak aztergai

Iñaxio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorearen hitzaldia izan zen martitzenean Miguel Altuna institutuan. Oliverik garapen teknologikoa eta unibertsitatearen zeregina aztertu zituen. San Joxepe antolatutako hitzaldi-sortarekin jarraituz, martitzenean, hilak 12, Guillermo Irazoki hizlari izango da Miguel Altunan, 19:30ean. Irazoki MUko errektore-ordea eta Ikerlaneko Ikerkuntza arloko zuzendaria da, eta *e-debagoiena* egitasmoaren gainean berba egingo du, sareko teknologien atzean dagoen mundua aztertuz.

ZAHARRETXOKOTIK

Gabriel Medina

ERRETIRATUA

Valladolideko Castronuño herrikoa, gaztetan etorri zen Bergarara. Cerrajeran egin zuen lan. Alaitsu beti, abestea eta billarrean jokatzea gustatzen zaio.

Billarrean maisu omen zaitugu.

Egunero jokatzen dut lagunekin, pare bat orduz, eta beti gustatu izan zait. Erretiratuen txapelketa hiru aldiz irabazi dut; azkena, abenduan. Karanbola errekorra? 19 jarraian egin nituen behin.

Abeslaria ere bazara.

Manolo Escobar baino gehiago abestu dut. Kontua da ez dudala dirurik irabazi. 1972. urtearen inguruan Arrasateko Idoia diskotekan abestu nuen. *Mondragón se lo merece* nik idatzitako tangoa abestu nuen, eta Gregory Man-ek,



berriz, *Angelitos negros*. Mila pezeta ordaindu zizkidaten, gusturen irabazi ditudanak, abesteagatik izan zirelako. Kopla asko idatzi ditut. Ahal dudanean abesten dut. Abesteaz gain, Valladoliden daukadan ortua da nire zaletasunetako bat: primeran pasatzen dut hara joaten naizenean.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma


Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

Aldoka Maldoka

TABERNA


Kruz Gallastegi
BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Bi atari hauek kale berean daude. Non?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
ELA sindikatuko idazkari nagusia Bergaran izan zen martitzenean. Nor da?</p> <p>A/ Jose Elorrieta.
B/ Rafa Díez.
C/ Unai Martínez.</p> | <p>2.
Nola du izena Udal Musika Bandak domekan estreinatuko duen lanak?</p> <p>A/ Pertxa.
B/ Sagarpe.
C/ Surrako doinuak.</p> | <p>3.
Zein taldetan ari da jokatzeko Iñigo Ziarsolo saskibaloia jokalaria?</p> <p>A/ Kenci Arrasate.
B/ Datac.
C/ Lobos Cantabria.</p> |
|---|--|---|

BERGARAKO ZUHAITZAK

Arizonako nekosta

Cupressus arizonica

MAITANE ARIZABALETA


Hostoirakurreko zuhaitza. Enborra zuzena eta konikoa du eta adar motz eta gorakorez osatua dago. Hostoak ezkata formakoak eta obalatuak dira, eta erretxin usain bizia dute. Udaberrian loratzen da eta haziak hurrengo urteko udazkenean heltzen dira.

Batik bat, lorezaintzan erabiltzen da, alde batetik, haizearen aurka babesteko heskaiak egiteko; eta bestetik, beste zuhaitz batzuekin batera, birpopulaketak egiteko; eta azkenik, apaingarri gisa. Kontuz ibili behar da apaingarri moduan landatzeko orduan, aloe urtetsuak eitearen irregulartasuna galduta eta adaburuak soildu egiten baitira. Hilerrietan asko landatzen da.

Nekostaren egurra usaintsua, testura finekoa, gogorra eta oso iraunkorra denez, untzigintzan erabilia izan da. Gaur egun, ebanisterian eta aroztegian erabiltzen da, itxituretako esolak egiteko, adibidez.

Bestalde, haziak taninoak dituzte, fitoterapian era guztietako jarioak geldiarazteko (diarreak) eta zirkulazio arazoak sendatzeko erabilia izan da.

“Udaberrian loratzen da eta haziak hurrengo urteko udazkenean heltzen dira”



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LEIRE UGALDE erandako izan da 5.000 pezetako erosketa-txartela. Zorionak, Leire!
Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Iribe / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-C.



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzailen artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Baqué kafea
250 gramoko paketea

1,19 €
198 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorenzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA

Fusinn
teknika
Zeuk aukeratutako irudia beira gainean

Artekalea, 18-behea. BERGARA
Tel. 943 76 74 09 / 670 483-903



BERGARA
Unai Belategi
Martxoaren 14an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Garitano
Martxoaren 8an 2 urte.
Urte askotarako!
Aitxa, ama eta Amaia.



BERGARA
Iker Nogueiras
Martxoaren 8an 2 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta June.



BERGARA
Ainhoa Eguren
Martxoaren 12an 11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ibane Baseta
Martxoaren 8an 13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Ainhoa Azkarraga
Martxoaren 8an 7 urte.
Urte askotarako!
Eskolako lagunak.



BERGARA
Jokin Gomez
Martxoaren 10ean 7 urte. Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Mikel Garcia
Martxoaren 6an 4 urte.
Urte askotarako!
Ander eta etxekoak.



BERGARA
Aitor Elizburu
Martxoaren 8an 7 urte.
Urte askotarako!
Ander eta Miren.



BERGARA
Unai Balanzategi
Martxoaren 13an 4 urte.
Urte askotarako!
Leire, ama eta aita.



BERGARA
Argiñe Varela
Martxoaren 8an 15 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpa.



ANTZUOLA
Naiara Toledo
Martxoaren 13an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Miren Muñoz
Martxoaren 5ean 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Iruñe Azkarate
Martxoaren 11n 10 urte.
Urte askotarako!
Osaba-izebak.



BERGARA
Maitane Urkiola
Martxoaren 11n urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eneko Etxeberria
Martxoaren 12an 3 urte.
Zorionak! Gurasoak,
Kristina eta Ainhoa.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Maddi Alberdi
Martxoaren 8an 5 urte.
Urte askotarako!
Ugarrixako familia.



BERGARA
Elizabet Rodriguez
Martxoaren 8an urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak eta anaiak.



ELGETA
Saioa Alberdi
Martxoaren 10ean 21 urte. Zorionak politx!
Etxekoak eta lagunak.



ANTZUOLA
Eneko Martin
Martxoaren 11n 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxungo

EDEL

TAPIZDENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

TELEIXA

BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

PANA DE ROKUA

TATETXEAL

Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

INFERNUKUA

TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

GARRAIOAK

ANDUZU

TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Argazkian, Aldibiko gerente Jose Maria Barrutiabengoa, Agustin Zaballa irabazlea eta Javier Zumelaga, Aldibiko zuzendari komertziala.

Aldibi

ARRASATE • Zigarrola 1-1. pabiloia • 943 71 20 02

Aurkezpen ekitaldia martxoaren 1ean izan zen, eta Nissan Primera ikustera joan zirenen artean Panasonic GS1 bideokamera digitala zozketatu zuten. **Agustin Zaballa Aspuru** suertatu zen irabazle.

NISSAN PRIMERA berria Aldibin

Primera berria da Nissan-eko espiritu berritzailearen abiapuntua. Diseinu aurrerakoiena eta teknologia berritzailea, gidariaren pertsonalitatea islatzeko gai den autoaren zerbitzura.

Erosotasuna:

Kontsola nagusi modernoa N-FORM sistema eksklusiboarekin. Aginte-tresnen funtzio berberak kontrolatzeko mugimendu gutxiago, %50 gutxiago.

· Audioa · Bidaia-ordenagailua · Atzeko ikuspegiko kamera · Satellite bidezko DVD nabigatzailea · Euri sentsore-dun haizetako-garbigailua · Aire-girogailua...

Segurtasuna:

Primera berria bere egonkortasunagatik eta fidagarritasunagatik nabarmentzen da. Gainera, segurtasun pasiboko ekipamendu osoa dakar.

· Egonkortasuneko Programa Elektronikoa (ESP) · Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentea (ICC) · Gurpilak ez blokeatzeko lau kanaleko sistema (ABS), balaztatzea banatzeko sistema elektronikoa (EBD) eta Nissan-eko balaztatze asistentzia (NBA) · Aurreko, alboko eta gortinako aire-poltsak · Buru-euskarri aktiboak · Estructura indartuak · Telefono-sistema integratua.

Prestazioak:

Abangoardiako teknologia gasolinazko motorretan -NCVCS sarrerako sistema eksklusiboarekin- eta injezio zuzeneko eta Common Rail-eko Turbo Diesel 2.2 autoetan.

Irakurri besterik ez duzu egingo, ala probatu egingo duzu?



PRIMERA. Inteligentzia forma berria.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a / 104. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Ika-mikak Udalean, gastu igoerak direla-eta


AINTZANE IRIZAR

EAJ alderdiak joan zen egubakoitzean etxe guztietara banatu zuen idatziari erantzun nahi izan diote Batasuna eta Zutik alderdiek beste idatzi batekin. Izandako gastu igoeraren zergatiak azaltzeko batzarra deitu dute biharko, zapatua, udaletxean.

Sagasti, Olaran eta frontoi inguruko lanak eta horietan izandako gastu igoerak direla-eta, ika-mikak sortu dira Udaleko alderdien artean.

Iaz, abenduko osoko bilkuran, lan horietan sortutako kostu igoerari aurre egiteko mailegua eskatzeko aukera aztertu zuten, eta EAJ eta EAko zinegotziek mailegu hori eskatzearen aurka bozkatu zuten; lan horien gaineko informazioa aztertu ondoren, "aurrera eramandako prozedura normala ez zela" izan adierazi zion orduan KONTUOLARI Jose Angel Zabalo EAJko Udaleko zinegotziak.

Joan den egubakoitzean, horren guztiaren inguruko idatzi bat banatu zuen Antzuolako EAJ alderdiak herriko etxe guztietan. Idatzi horretan "Udaleko arduradun nagusien kudeaketa" txarra izan dela eta "arduradun horiek ardura barik jokatu dutela" salatu nahi izan du EAJk; bide batez, "gestio txar eta ilun horren zergatiak zeintzuk izan diren" azaltzeko eskatu die EAJk alkateari eta bere taldekideei.



Sagasti, Olaran eta frontoi aurreko lanetan aurrez ikusitako gastuak igo egin dira.

BATASUNA ETA ZUTIK ALDERDIEN ERANTZUNA

Berehala iritsi da Batasuna eta Zutik alderdien erantzuna ere. Bi alderdi horiek alderdi jeltzalearen testuari beste idatzi batekin erantzun diote.

Idatzi horretan, Sagastiko, Olarango eta frontoi aurreko lanetan izandako gastu igoeren zergatiak azaldu nahi izan dituzte alderdi bi horiek. Bestalde, Batasunak eta Zutikek adierazi dute hartu dituzten erabakiak "herri-

tarren onerako zirelakoan" hartu dituztela. Eta, horrekin batera, zera gaineratu dute: "Sortutako desbideraketaren erantzukizuna geure gain hartzen dugu tokatzen zaigun neurrian".

Azkenik, zapatu goizean, 11:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan jendaurreko azalpena egingo dutela adierazi dute Batasunak eta Zutikek, ahalik eta informazio zehatzena emateko eta herritarren galderei erantzuteko.

ETXEKO ANIMALIAK

Animalien ugazabei idatzia bidaliko zaie

Udalaren helburua da animalien ugazabak sentsibilizatzea, eta animalien gaineko arauak jasotzen dituen Udal ordenantzaren berri ematea. Iazko ekainean onartu zuen Udalak ordenantza hori, eta animaliekin lotutako hainbat gai arautzen ditu; besteak beste, animaliekiko tratua, garbitasuna, elikadura edota animalien babesak.

Gaur egun animaliekin herrian dagoen arazorik nabarmena da kalean egiten dituz-

tela txakurrek euren eginbeharrak, sarritan oinezkoen guneak zikinduz. Hori saihesteko udal ordenantza helaraziko diete etxean animaliak dituzten herritarrei, eta baita idatzi bat ere, arauak diotena betetzeko eskatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu diote txakurrak dituzten antzuolarren zerrenda; errola hori jaso bezain pronto hasiko dira Udaleko arduradunak esandako informazio guztia animalien ugazabei bidaltzen.

ZABORRA

Mankomunitatearen esku edukiontziak

Orain arte Antzuolako Udalaren ardura izan dira herriko zabor edukiontziak. Otsaila amaieratik, baina, Debagoieneko Mankomunitatearen esku geratu dira. Gauzak horrela, Mankomunitateak kontratatutako enpresa bat arduratuko da edukiontzi horiek hustu eta garbitzeaz. Baita, hondatzen direnean, konpondu edo berriak jartzeaz ere.

Ibarreko gainerako herrietan oraintxe ari da Mankomunitatea edukiontziak jartzen. Antzuolako kasuan, berriz, ez da edu-

kiontzi berririk jarriko; daude-nak Mankomunitatearen eskura pasatuko dira. Izan ere, Udalak edukiontziak edukita, berriak erostea alferreko gastua zela ikusi zuten.

Joan den astean, hondatuta zeuden hainbat edukiontzi konpondu eta hiru berri jarri zituen Mankomunitateak.

Guztira 34 edukiontzi daude herriko hainbat gunetan; 1.000 litroko edukiera dauka bakoitzak. Gainerako herrietan hantxegoko jartzen ari dira.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teillatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

GoROSTI

Taberna

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

IRAKURLIAREN TXOKUA

PINTADEN INGURUAN

Herrian azaldu diren pintadak direla eta, *El Diario Vasco* egunkariko Antzuolako berriemaileak joan zen astean KONTUOLAn idatzitako adierazpenak benetan larriak iruditzen zaizkigu.

Kazetari horrentzat Antzuolako berriak ia-ia kirolera mugatzen dira. Herriko bi erakunde ilegalizatu ditu Garzonek: Segi eta Askatasuna. Hori ez omen da berri aipagarria. Gazteak antolatzea ilegala da eta klandestinitatera bultzatu dira. Hori ez omen da berri aipagarria. Hori bai, herrian pintadak azaltzea notizia da. Pintadak inori ez zaizkigu gustatzen, baina pintada horien arrazoiak zeintzuk diren ikusi beharra dago. Kazetari horren komunikabideak eta beste hainbatek txalotu egiten dituzte ilegalizazioa, espetxeratze masiboak...; eta, aldi berean, estali egiten dituzte torturak, Iruñeko 28 eguneko gose greba eta abar. Egoera honetan, zein bide gelditzen zaie gazteei euren egoera kaleratzeko eta euren proiektuak bideratzeko?

Benetan larria iruditzen zaigu kazetari horrek Garzon eta Aznarren erantzuna desiratzea. Tristeza da gure herriak jasaten duen egoera konpontzeko bide errepresiboa aukeratzeko duen jendea egotea Antzuolan.

Bukatzeko, Antzuolako pintadak kentzearen kostuak gure jubilatuen soldatak murrizten dituela insinuatzea demagogia merkea da. Kazetaritza ikasketak bukatu dituen batengatik hori baino argudio pisuzkoagoak espero zitezkeen.

ANTZUOLAKO
BATASUNA

ELKARRIZKETA

AMAIA VÁZQUEZ/PSIKOLOGOA

“Umeei egia esan behar diegu beti, eta egindako galdera guztiei erantzun”

A.I.

Eguaztenean, hilaren 13an, 18:30ean, hitzaldia egingo du Amaiak eskolan. Zazpi urte bitarteko umeen gurasoei zuzenduta dago hitzaldia. Hilaren 20an, berriz, zazpi eta 12 urte bitarteko gurasoendako egingo du berbaldia.

Zer eskaintzen diete gurasoei era honetako hitzaldiek?

Gurasoek informazioa behar dute ulertzeko, alde batetik, zergatik gertatzen diren adierazpen sexual batzuk, baita sexualitatea zer den ulertzeko ere. Izan ere, askotan sentitzen dugu sexualitatea dela praktika sexualak izatea, eta hori ez da horrela, bestela ezin izango genuke umeen sexualitateaz berba egin.

Gurasoek zer erakutsi behar diete umeei sexualitateaz?

Nahita edo nahi gabe, beti ari gara zerbait erakusten. Garapen psiko-afektibo sexuala oso garrantzitsua da pertsonok gure identitatea finkatzeko. Eta familiak izugarriko ardura du. Kontu horiek guztiak eskolan lantzen dira, baina batez ere bizipena landu behar da, eta hori familian lantzen da. Aita eta ama, nahita edo nahi gabe, seme-alabentzako sexualitate eta maitasun eredu izaten dira, eta hori jakin behar dute gurasoek. Ikusi behar dugu zer garrantzia daukaten gure mezuek, gure bizipenek, euren hazkuntzan.

Umeei ikusten badute gurasoek lasai berba egiten dutela plazerraren gainean, elkarren artean erakarri egiten direla eta hori adierazten dutela, era baten ulertuko dute sexualitatea. Baina, gaia aipatu ere ez bada egiten, umeei barneratzen dutena da gai hori sekretua dela, intimoa dela, debekatuta dagoela.

Baina zenbateraino erakutsi eta zer ezkatatu?

Egia da bikotearen intimitate afektibo eta sexualari eutsi egin behar zaiola, baina beste



ARETXAGAZETA

“Aita eta ama sexualitate eta maitasun eredu izaten dira seme-alabentzako”

guztia erakutsi behar zaie. Galdera hori, gainera, guraso askok egiten digute. Haurtzaroen izaten dituzte gurasoek zalantza gehien. Nik beti esaten diet egia esan behar diegula umeei, eta egiten dizkiguten galdera guztiei erantzun behar diegula.

“Identitate sexuala deskubritzeko, euren gorputzarekin jolasten laga behar zaie umeei”

Umeari noraino laga behar zaio bere gorputzarekin jolasten?

Hor ez dago mugarik. Euren identitate sexuala deskubritzeko, euren gorputzaz jabetu behar dira, eta laga egin behar zaie euren gorputzarekin jolasten.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Martxoak 9
11:00: Antzuola-Beraun Touring (Kad.)
Martxoak 10
12:00: Antzuola-Intxurre (Gazteak)
16:30: Antzuola-Ikasberri (2. erregion.)

PILOTA

Martxoak 9 (Udaberri Saria)
17:30: Olalde-Ikaskirola (eskuz kadet.)
Martxoak 12 (Debarroko Txap.)
19:00: Olalde-Bergara

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 Trintxerpe B 2 (2. erreg.)
Antzuola 0 Bergara 0 (Neskak)
Burumendi 2 Antzuola 0 (Gazteak)
Urola 2 Antzuola 3 (Kadeteak)

PILOTA

Udaberri Saria
Gure Txeru-Olalde (eskuz kad.) . . . 22-20
Olalde-Murumendi (eskuz nag.) . . . 22-15
Olalde-Altzaterra II (paletaz) . . . 19-35
Deba Arroko txapelketa
Olalde-Eskoriatza (kadeteak) . . . 7-22
Olalde-Eskoriatza (nagusiak) . . . 22-17

ESKOLA KIROLA

Eskubaloia, benjaminak
Antzuola A-Aranzadi "6" 1-1
Antzuola B-San Martin A 2-0
Saskibaloia, alebinak
Antzuola-Aranzadi 10 (nesk.) . . . 56-6
Antzuola A-Aranzadi 10 (mut.) . . . 34-20
Antzuola B-Aranzadi 11 (mut.) . . . 10-26

LABUR

Erretiratuek batzar orokorra dute bihar, zapatua

Bihar, zapatua, egingo du erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra, arratsaldeko seietan, Zurrategiko egoitzan. Aurreko urteko balantzea eta 2002ko egitasmoak jorratuko dituzte batzarrean.

Traste zaharrak ateratzeko aukera, hilean bi bider

Hilean bi bider izango dugu Antzuolan traste zaharrak ateratzeko aukera: hileko lehen-dabiziko eta hirugarren egue-nean. 20:00etatik 22:00etara atera beharko dira, eta zabor edukiontzien ondoan laga.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegori 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Langela: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA



Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko martxoaren 8a / 90. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

ELGETAKO GAZTETXEKO BATZARKIDIAK

“Ilusiñua hasierako bardiña dan arren, gauzak beste modu baten ikusten dittugu”

OXEL EROSTARBE

Elgetako gaztetxiak sei urte beteko ditu martxuaren 23an. Oin momentuan Iraia, Naroa, Esti, Izaskun, Geaxi, Eva, Ariane, Mari Mar, Nagore, Goratze eta Ainara dira asteroko batzarraren arduria dauken gaztiak. Gaztetiaren seigarren urteurrena dala-eta, ekintza ugari antolatu dittue martxo-rako. Horren gainian eta gaztetiak honetan urtiotan eruan daban bidian gainian egin dogu berba eurekin.

Aurten ekintza ugari antolatu ditzuzue urteurrena dala-eta. Ze helburukin antolatu ditzuzue?

Ekintzokin jentiaeren parte hartzia bultzatu nahi dogu. Jentia gai batzuen gainian informatzen ahalegintzen gara; izan be, *Teleberri*-xetan edo prentsan esaten doskuenaz aparte, beste gauza batzuk be gertatzen dira.

Gaztetiak sei urte bete dittu. Hasierako animuekin eta helburuekin jarraitzen dozue?

Ilusiñua bardiña dan arren, gauzak beste modu baten ikusten dittugu. Hasieran, lokala lortziak, barrua atontziak, autofinanziatzeko moduak topatziak inportantzia haundixa zeuken. Gaur egunian lokaleko egitura eginda dago eta ez daukagu ekintzak aurrera eruateko diru arazorik.

Gaztetiako batzarraren arduria daukazuen belau-naldi barrixa zarie. Ze baloraziño egitten dozue honena bidionena? Honekin bidionekin jarraitzeko asmu daukazue?

Helburu batzuk lortuta eukitziak helburu barrixak billatzia eragitten dau. Lehengo ibilbidien baloraziño baikorra egitten dogu, eta helburuak bardiñak dira. Aldatu dana egoeria da. Lehenago gaztetiak era eta adin guztixetako jentiaendako ekintzak antolatu bihar zittuan.



Honek neskok dauke gaztetiako batzarraren arduria, eta laster mutillak sartuko dirala esan doskue.

“Egindako bidia positibua da, eta helburuak bardiñak dira. Aldatu dana egoeria da”

Gu horretan laguntzeko gertu gare, baiña gaztion arazuetan gehixago sakondu bihar dogula pentsatzen dogu. Horretarako, hausnarketa egitten gabiz oin momentuan. Jentia informau aurretik, guk horrek gaxok sakon ezagutu bihar dittugulako.

Asentzio Eguna antolatzia beste elkarte batek hartzia gustora hartuko ziñutela adierazi dozue.

Asentzio Eguna beste elkar-terren batek antolatzia guk bes-

“Asentzio Eguna antolatzeko arduria beste batek hartuta, herrira gehixago zabalduko da”

Martxuaren 9xan

• Gabeko 11etan, KEN 7

Martxuaren 10ian

• Arratsaldeko 5etan, *Como ser mujer y no morir en el intento* bideo-proiekziñua.

Martxuaren 17xan

• Umien Eguna: mendi irteeria, jolasak, bazkarixa... (izenemotia liburutegixan)

“Egunen baten gaztetiak ixtera etortzen badira, jentia gurekin egongo da”

Martxuaren 23an

Gaztetiaren urteurrena:

• Eguerdixan, trikitilarixak.

• Herri bazkarixa

(izenemotia Haizea tabernan edo gaztetiaren).

• Antzara jokua.

• Kontzertua: Ruber 28 eta Ensaladilla Sound Sistem (Kataluñatik).

Aurtengoan ere Ska, Reggae eta erritmo biziak izango dira entzungai.

te ekintza batzuk gertatzeko denboria izatia eragingo leuke. Momentuan Goibekok eta norbanako batzuk ardura hori hartzeko gertu dabela esan doskue. Laster egingo dogu batzarrarekin. Beti egongo gara gertu laguntzeko. Beste batzuk antolaketiana arduratuta, jaixa herrira gehixago zabaltzia bultzatu nahi dogu.

Azkenaldixan izen haundiko musika taldiak ekartzen zabizie. Hasibarrixak diran taldiei aukeria emoten dotsazue?

Ez da izan gu euren atzetik ibilli gazelako. Izeneko taldiak etortziakin, beste talde batzuk ekartzeko finantziaketia lortzen dogu. Hasten dabizen taldiak beti euki dabe atia zabalik. Urteurrenaren barruan Eten taldia etorri da.

Gaztetiaren kontra egitten ari diran kanpainia salatu dozue behin eta berriro. Elgetako gaztetiak itxiko daben bilddurra daukazue? Badaukazue zergaittik?

Gaztetiaren kontrako kanpainia herri haundixetan hasi da. Baiña horren helburua gazteti danekin amaitzia dala pentsatzen dogu. Asteburu askotan gaztetiaren inguruan ibilli dira ertzaiñak. Horrek egoerorrek, gertu ez ikusi arren, urrin be ez ikustia eragitten dosku. Egunen baten gaztetiak ixtera etortzen badira, ez daukagu dudarik jentia gurekin egongo dala. Ekintzetan era guztixetako jentia hartzen dau parte. Horrek herrixa gaztetiakin dagola pentsatzera eruatzen gaitu.

Azkenaldixan, nahikua jentek izena emon ez dabela-eta, ekintza batzuk ezin izan ditzuzue aurrera eruan. Ze baloraziño egitten dozue horren gainian?

Arrazoiak aztertzen ibilli gara eta izan leike gauza batzuk antolatzeko orduan ez dogula asmatu. Hala eta be, esan biharra dago ekintzak antolatzeko orduan beti pentsatzen dogula bertan parte hartuko daban jentian.

ERAKUSKETA

Gaur zabalduko dute Amazoniaren egoera ezagutaraztea helburu duen erakusketa

O.E.

Kultura batzordeak antolatuta, Medicus Mundi elkartearen erakusketa izango da ikusgai kultura etxean. Gaur hasi eta domekara arte iraungo du erakusketak. Bertan, Ekuador-ko Amazoniako 43 erretratu eta hango egoeraren gaineko datuak erakutsiko dituzte.

Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundearen *Yana Curi. Paradisu zauritua* deritzon erakusketa ibiltaria gaur iritsiko da Elgetara.

Kultura batzordeak antolatu duen erakusketa ibiltaria aste-buru osoan egongo da ikusgai kultura etxean: gaur, barikua, arratsaldeko seietatik zortzieta-
ra; zapatuan, eguerdiko hamabietatik ordu bietara eta iluntzeko seietatik zortzieta-
ra; eta domekan, eguerdiko hamabietatik ordu bietara.

Yana Curi *urre beltza da; petrolioa*, Amazoniako hizkuntzan.


Petrolioak Ekuadorko Amazoniari eta hango biztanleei eragin dizkien kalteak agerian lagatzen ditu erakusketa horrek.

Erakusketa Manuel Charlon-ek ateratako 43 erretratu osatzen dute. Erretratu bakoitza testu labur batez lagunduta dator.

PETROLIO USTIAKETAREN ONDORIOAK

Ekuadorko Amazoniako bizimodu zeharo aldatu da 1970eko hamarkadan petrolio putzuak aurkitu zituztenetik hona. Ingurumenean eta hango biztanleen osasunean eragin dituen ondorioak ezagutzeko, azterketa egin zuen Medicus Mundik han.

Miguel San Sebastián sendagile gipuzkoarra arduratu zen azterketa horiek egiteaz, eta erakusketa azterketaren emaitzen laburpena da. Bertan adierazten denez, gizonak minbiziagatik hiltzeko arriskua % 360 handiagoa da. Eta petrolio putzuetatik gertu bizi diren emakumeek batabateko ume galtzeak jasateko aukera ere 2,5 handiagoa da.



Medicus Mundiren erakusketa 43 erretratu osatzen dute.

MEDICUS MUNDI

LABUR

Estanpaciones Intxortak lehena irabazi zuen

Aurtengoan ere, txapelketa bikaina egiten dihardute Estanpaciones Intxortako mutilek. Domekan, Kopako finalaurrekoetako lehenengo partidua jokatu zuten Bar Azitainen aurka, baita irabazi ere. Defentsan egindako lanari esker, kanporaketako lehenengo partidua 44-32 irabaztea lortu zuten.

Asteburu honetan, Kopako finalaurrekoetako bigarren partidua jokatu dute. Bertan erabakiko da zeinek jokatuko duen Kopako finala. Estanpakoek eskuetan dute Kopako finalerako sailkatzea.

Ligan ere aurrenekoen artean daude elgetarrak.

Ferixa Nagusiak antolatzeke, 5.800.000 pezeta

Azkenean Jai batzordeak badaki zenbat diru izango duen aurtengo Ferixa Nagusiak antolatzeke.

Aurreko asteko Gobernu batzordean aurtengo jaiak 5.800.000 pezetako aurrekontua izatea onartu ondoren, Jai batzordeak musika eta gainerako ekitaldiak lotzeari ekin dio.

Aurten ere, egitarau zabalak osatzen saiatuko dira.

Maite Elkoro, berriro ere Udaleko kontulari

Azken oposizioetan Jesus Mari Agirrezabalak lortu zuen Elgetako Udaleko kontulari lanpostua. Duela hilabete inguru, ordea, Olabarriko Udalak ateratako plaza hartu zuen. Jesus Marik utzitako lekua Udaleko kontulari oposizioetan bigarren geratu zen Maite Elkorok hartuko du. Maitek aurretik ere jardun du behar horretan. Hortaz, aurrerantzean hura izango da Udaleko kontularia.



Zaborrontziak erabiltzen hasi

Martxoaren 5a ezkerko zaborrontzietan laga behar ditugu zabor-poltsak. Zaborra martitzenetan, eguenetan eta domeketan jasoko dute, 22:00etan. Usain arazoak eta bestelakoak ekiditeko, zaborra egun horietan gaueko zortziak eta hamarrak artean zaborrontzietan lagatzeko dei egin du Udalak. Bederatzi zaborrontzi berri ere jarri dituzte.

Objektu handi eta erabilpen gabekoen bilketa hileko lehenengo eta hirugarren astean, gaueko 20:00ak eta 22:00ak artean, izango da aurrerantzean./O.E.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

OSTATU JATETXEA

•Eguneko menua 800 pza.
•Karta.

Gudarien Bide, ELGETA
Tel: 943 76 80 23

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN

TAPEM S.A

Trokelak eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

ERRETRATUZAHARRA

Lokatzako
gazte mailako
txirrindulariak

Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolako taldeek laster hasiko dute aurtengo denboraldia. Amateur mailako txirrindulariak badira errepidean dagoeneko, eta datorren martxoaren 19an, Gorlako igoeran izango dira tropeleko eskalatzaile onenak.

Oraingo asteko erretratua Lokatzak izan zuen lehen gazte mailako taldeena duzue. Erretratua 1982koa da eta Gatzagako Gure Ametsa jatetxearen ondoan aterata dago. Txandal zuriarekin agertzen direnak bigarren urteko gazteak ziren eta txandal urdina dutenak, berriz, lehen urtekoak. Bigarren urtekoekin Pello Larrañaga eta Agustin Barbero aritzen ziren zuzendari lanetan, eta lehen urteko gazte taldeko entrenatzailea Fermin Hernández zen. Gipuzkoako errepideetan jokatzeko ziren lasterketetan ibiltzen ziren Lokatzako gaztetxo hauek.

Argazkian agertzen direnek 16-17 urte izango zituzten. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara: Txomin



Unamuno, Agustin García, Jesus Mari Rueda, Emiliano Sánchez, Jon Suinaga, Iñigo Jauregi, Ricardo Iturbe, Martin Alberdi, Igor Garitano, Enrike Elkoroberezibar, Jose Ramon Etxeberria eta Iñaki Zenitagoia.

Argazkia: Lokatza Ziklismo Eskola.

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Irala kalearen
aldaketa
1962tik hona

Herriko beste hainbat toki bezala, Irala kalea ere erabat aldatu da azken urteotan. Eskumako bi argazkiak konparatzea besterik ez dago. 60ko hamarkadan, etxebizitza ugari egin zituzten eta herri barruko kale nagusietako bat bilakatu da gaur egun. Kalearen itxuraldaketarekin jarraituz, Udalak kalea urbanizatzen eta lur azpiko aparkalekuak egiteko asmoa dauka.



≈ 1962

Telefonikako eta Miguel Altuna Institutuko eraikinak, 1962. urtearen inguruan. Argazkiaren egilea Pedro Urkixo da (BUA).



2002

Irala kalea, gaur egun. Etxebizitza gehienak 60ko hamarkadan eraiki zituzten, eta ezkerreko irudiarekin duen aldea nabarmena da.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.


Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Udaberria - Uda

XUXU

San Pedro kalea 14. BERGARA
Tel.: 943 76 07 55

NARRUA PREZIO BEREZIAN!



Gorka Etxabe

14:00 eta 15:15
BERRIAK



Mainer Osa

20:00 eta 21:30
BERRIAK

GOITBko
Informatiboak:
GERTUKOENAK!



EGUNERO EGUERDI ETA ILUNTZEAN



Orain, Europan ere, Bezere desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruua, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezere bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS